

**GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA,
GAZTERIAREN EUSKAL LEGEAREN PROIEKTUARI DAGOKIONA**

Txosten hau Gazteria Zuzendaritzak egin du, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Unitate Administratiboaren laguntzaz.

Hitzaurrea

Txosten hau egiteko aurretik gazteei buruz bi lege-proiektu izapidetzean egindako txostenak kontuan hartu dira; lehen lege-proiektua 2008ko irailaren 23an onartu zuen Gobernu Kontseiluak, eta bigarrena, berriz, 2011ko urriaren 7an, baina ez zuten gaingiditu Legebiltzarreko tramitazioa

**1. GAZTERIAREN LEGEAREN DESKRIBAPENA ETA EMAKUMEEN ETA
GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA****1.1 PROIEKTU MOTA**

Legea.

1.2 IZENA

Gazteriaren Euskal Legea

1.3 EGIN DUEN ADMINISTRAZIO-ORGANOA

Gazteria Zuzendaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

1.4- PROIEKTUAREN XEDEA

Proiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan gazteria-arloko politika garatzeko arau-eta eskumen-esparrua ezartzea. Helburua da gazteei beren eskubideak baliatzeko babesa eta bideak ematea, haien izaera edo baldintzak edozein direla ere, eta gazteen parte-hartzea sustatzea gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, iraunkor eta kulturean, bai eta beharrezko baldintzak sortzea ere, haien autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko, haurtzaroan hasitako etengabeko prozesuaren amaiera gisara.



Horrela, administrazio publikoek gazte-politika integrala bultzatzeko dituzten eskumenak eta eginkizunak arautzeko premiari erantzuten dio Gazteriaren Euskal Legeak. Politika horrek, batetik, gazteak emantzipatzea eta gizarteratzea posible egingo duten neurriak hartzen ditu barne, gazteriaren arloko zeharkako politikak planifikatuta, egikarituta eta ebaluatuta. Bestetik, gazteriaren sustapena hartzen du barne; administrazio publikoetako zenbait sailek gazteentzat berariaz funtzionamenduan jarritako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskainita, eta betiere gazteen euren partaidetza sustatuko duten prozesuak eta bideak erabilia, helburua gazteek herritar gisa dituzten eskubide eta askatasunak baliatuko dituztela bermatzea izan behar delarik.

Gazteriaren Euskal Legeak gazteengan eragin zuzena duten politika sektorialen koordinazio-lanean urteetan egindako ahalegin handia finkatzen du, eta, beraz, EAEko erakunde guztiek baliozkotutako ibilbide bat amaitzen.

1.5 PROIEKTUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE LEGE-ARAU BATZUK

Legea garatzeko arauak eman bitartean, eta legearen aurkakoa ez den orotan, indarrean jarraitzen dute ondorengo dekretuek eta aginduek, Euskal Autonomia Erkidegoan, egun, erreferentziazko arauen eta dokumentuen bilduma bat dagoelako gazteria-arloan, arlo horretan eragile izan ohi direnek historikoki metatutako bidea eta esperientzia biltzen duena, eta nahitaez baliatu beharrekoa, nahiz eta araudi horietako ezeinetan ere ez den helburu espezifikorik planteatzen berdintasuna lortzeko:

170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena.

Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailekoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen zentsua sortzen da.

Uztailaren 8ko 162/ 1986 Dekretua, Consejo de la Juventud de Euskadi Euskadiko Gazteriaren Kontseilua sortu zuen maiatzaren 27ko Legea zati batean garatzen duena.

14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Zentro Koordinatzailea sortzen duena.

211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespenez ofiziala arautzen duena.

406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.

260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko “Gazte txartela-Carnet joven” eratu eta arautzeko dena.

Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena. Honen bidez urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen da, hau da, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu, erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak moldatua.

Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko.

Berrikiago, Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzekoa onartu da, eta berdintasuna lortzeko helburu espezifiko jakin batzuk jasotzen ditu.

1.6 DIAGNOSTIKOA

Mutilek eta neskek legearen artikulua nagusiei dagokienez duten egoerari buruzko datuak jasotzen ditu diagnostiko honek, aginduzko lau ataletan egituratuta: baliabideak; erabakiak hartzen parte hartzea, eta horretarako aukera izatea; gizarte-arauak eta -balioak; eta eskubideak.

Datuak gazteen egoeraren ikuspegi panoramikoa ematen dute, eta adierazten zer artikuluri lotuta dauden eta zer gairi buruzkoak diren.

BALIABIDEAK ESKURATZEA

Gazteriaren Euskal Legearen eraginpeko baliabideak eskuratzeaz sexuaren arabera egindako azterketa zabala da, barnean hartzen baititu, alde batetik, gazteria-arloko politika integraletako jarduera-ildo transbertsalen barruan daudenak, eta, bestetik, gazteentzako ekipamendu eta zerbitzu espezifikoak.

Plan sektorialak: 17.-20. artikulua (18. artikuluan zentratuta)


Gazteriaren Euskal Legearen proiektuak, 18. artikuluan, gazteria-arloko EAEko Estrategiaren esku-hartze ildoak zehazten ditu, eta, horregatik, hurrengo orrietan aztertzen da zer egoeratan dauden gazteak lege-proiektuan zehaztutako esku-hartze ildo nagusietan.

Gazteak eta enplegua.

Enpleguari dagokionez, beste ezer baino lehen esan behar da ikastea dela gazteen zeregin nagusia 25 urte bete baino lehen; izan ere, 16 eta 19 urte artean, gazteen % 93,2 ikasten ari da, eta 20 eta 24 urte bitartean ere gehiengo dira ikasleak (% 61,5). Baina 25 urte bete ondoren gehiago dira lan egiten dutenak, eta ikasleak, Gazteen Euskal Behatokiak 2017rako emandako datuen arabera, % 18,1 dira.


Ikasten jardute hori, zeina, bestalde, gero eta handiagoa baita, argi geratzen da gazteen jarduera-tasa aztertzean. Jarduera-tasak lanean ari diren edo lan egiteko prest dauden biztanleen berri ematen digu, eta nabarmen jaitsi da azken urteetan; gainera, tasan aldeak daude emakumezko eta gizonezko gazteen artean. Ia 16 eta 29 urte arteko gizon guztien erdiak (% 49,5) lanean edo lana bilatzen ari dira. Emakumeen artean, berriz, erdiak baino

pixka bat gutxiago (% 45,9) dira, ziur asko gehiago aritzen direlako ikasten, eta hori bat dator emakumeen artean goi-tituludunak direnen ehunekoa gizonen artean baino handiagoa izatearekin.




Bestalde, 16 eta 29 urte artean, gazteen okupazio-tasa % 39,8 da, baina alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen artean, adin horretan gehiago direlako gizon landunak (% 43,2) emakume landunak baino (% 37,6). Baina hori ez da horrela gertatu urte guztietan. 2001ean eta 2009an, gizonezko gazteen okupazio-tasa emakumezko gazteena baino handiagoa zen, baina 2010ean bi tasak parekatu egin ziren, eta ordutik aurrera emakume gehiagok ziharduten lanean gizonek baino. 2017an, joera berriz aldatu da, eta okupazioa handiagoa da gizonen artean. Arrazoia da gizonen okupazioa pixka bat suspertu dela krisi-urteekin alderatuta, baina emakumeen okupazio-tasan ez da hobetze hori gertatu.

Euskadiko 16-29 urteko biztanleen okupazio-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATen datuak oinarri hartuta (BJA)

Aldi berean, behera egin du langabezia-tasak, baina jaitsiera hori ere ez da berdina izan gizonezko eta emakumezko gazteen artean. Gizonen langabezia-tasa ia hamar puntu jaitsi da 2016tik 2017ra, baina emakumeen artean jaitsiera lau puntukoa baino ez da izan. Hartara, 2017an, 16-29 urte arteko gizonen langabezia-tasa % 15,7 da, eta adin bereko emakumeena handixeagoa, % 18,0. Datu horiekin azken urteetako joera ere eteten da, 2007 eta 2016 artean gizonezkoen langabezia-tasa emakumezkoena baino handiagoa zelako.




Enpleguari buruzko zenbateko orokorrak bezain adierazgarriak dira enpleguaren kalitateari buruzkoak.

Behin-behinekotasun tasa etengabe handitu da, eta jadanik hiru soldatapeko gaztetik bik aldi baterako kontratua dute (% 67,5). Emakumezko soldatapeko gazteei gehiago eragiten die behin-behinekotasunak gizonezkoei baino (% 71,8 eta % 64,2 hurrenez hurren).



Lanaldi partzialak ere nabarmen emendatu dira, eta askoz emakume gehiagok lan egiten dute denbora partzialean (30 ordu baino gutxiago astean) gizonek baino: 16-29 urte bitarteko emakumezko landunen % 39,4 eta adin bereko gizon landunen % 22,3.




Soldatei dagokienez, gazteen batez besteko soldata garbiak ozta-ozta dira hileko 1.000 eurotik gorakoak, eta handiagoak dira gizonetzko gazteen artean (1.157,0 euro) emakumezkoen artean baino (1.024,5 euro).

Kontuan hartuta gizon gehiagok dihardutela lanean eta, gainera, soldata handiagoak dituztela, logikoa da hilean 600 euro baino gehiago irabazten dituzten gizonen ehunekoa (16-29 urte bitarteko pertsona guztiekiko, lan egin zein ez) handiagoa izatea egoera bereko emakumeena baino (% 31,4 eta % 26,8, hurrenez hurren).

Gazteak eta hezkuntza

Euskadin, eskola-uzte goiztiarraren tasa (% 7,0) Europako batez bestekoa baino txikiagoa da (% 10,7, 2016. urtean). Tasa horrek gehienez ere derrigorrezko irakaskuntza amaitu baina ikasten jarraitzen ez duten 18-24 urte arteko pertsonen ehunekoa neurtzen du, eta handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 8,5 eta % 5,5, hurrenez hurren). Krisiaren aurreko urteetan, gizonetzkoen tasak ia bi aldiz handiagoak ziren emakumezkoenak baino, baina, orduetik aurrera, lana suntsitu eta lana aurkitzeko itxaropena galduta eta enplegarritasuna hobetu nahirik, gizonetzko gazte askok ikasten jarraitu zuten, eta, horrenbestez, ia ez zen alderik izan 2010 eta 2012 artean. Ordudanik, tasa gehiago jaitsi delarik emakumeen artean gizonen artean baino, berriro ere halako arrakala bat dago, hiru puntukoa 2017an.


Eskola-uzte goiztiarraren tasaren bilakaera Euskadiko 18 eta 24 urte arteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Espainiako Gobernua)

Bestalde, goi-mailako hezkuntza-tasak gora egin du azken urteetan, batez ere emakumeen kasuan. Gizonen artean gora egin zuen krisi-urteetan, baina 2015etik aurrera, enplegua suspertzearekin batera, balioak berriz ere krisiaren aurrekoen antzekoak dira. 2017an, hamabost puntu eta erdiko aldea dago goi-mailako titulazioa (unibertsitatekoa edo goi-mailako prestakuntza-zikloak) duten 30-34 urteko emakumeen (% 62,9) eta goi-mailako ikasketak dituzten adin bereko gizonen (% 47,2) artean.

Goi-mailako hezkuntzako titulazioaren bilakaera 30 eta 34 urte arteko pertsonen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Espainiako Gobernua)

Gizonezko eta emakumezko gazteen arteko aldeak ez dira bakarrik gertatzen derrigorrezko irakaskuntzaren ondoren ikasten jarraitzen dutenen kopuruari dagokionez, bai eta aukeratzen dituzten ikasketa motei dagokienez ere. Euskadin 2015/2016 ikasturtean lanbide-heziketan (oinarrizkoa, erdi-mailakoa edo goi-mailakoa) matrikulatutako pertsona guztietatik, herenak baino pixka bat gehiago ziren emakumeak (% 35,6) eta, gainerakoak, berriz, gizonak (% 64,4).


2015/2016 ikasturte horretan bertan Euskadiko edozein unibertsitatetan unibertsitate-gradu bat amaitu zutenen artean, ordea, emakumeak (% 57,4) gizonak (% 42,6) baino gehiago izan ziren. Egindako ikasketa motetan ere alde nabarmenak daude: emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da osasunaren zientzietan, arte eta giza zientzietan eta zientzia sozial eta juridikoetan; aldeak zertxobait txikiagoak dira zientzietako karreretan, baina emakumeen kopuruak handiagoa izaten jarraitzen du; ingeniarietzan eta arkitekturan, berriz, emakumeen kopurua gizonena baino dezente txikiagoa da.

2015/ 2016 ikasturtean EAeko unibertsitateetan gradu-ikasketak amaitu zituzten ikasleak sexuaren arabera banatuta, eta karrera mota kontuan hartuta						
(%)	GUZTIRA	ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK	ZIENTZIAK	OSASUNAREN ZIENTZIAK	GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZIENTZIA JURIDIKOAK	INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA
Emakumeak	57,4	66,2	56,4	78,4	61,9	29,8
Gizonak	42,6	33,8	43,6	21,6	38,1	70,2
Guztira	100	100	100	100	100	100


Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATen unibertsitate-estatistikako datuak oinarri hartuta

Gazteak eta etxebizitza

Gazte emantzipatuak gutxiengoa dira 30 urte bete aurretik; zeharkari, 18-24 urtekoen artean gazteen % 6,7 baino ez dago emantzipatuta, eta ehuneko hori handiagoa da 25-29 urte dituztenen artean, % 37,4. 30-34 urtekoen artean, berriz, gehiengoa jatorriko familiarena ez den etxe batean bizi da jarraituki (% 72,1). % 38,9 da 18 urtetik 34 urtera bitarte dituztenen artean emantzipatuta dauden pertsonen ehuneko orokorra; baina alde nabarmena dago gizonezko eta emakumezko gizonen artean: adin-tarte horretan, emakumeen % 45,9 dago emantzipatuta, eta gizonen % 31,8.



Hala ere, emakumeek emantzipatzeko dituzten baldintza ekonomikoak, hasieran, gizonenak baino okerragoak dira. Soldata txikiagoak dituztenez, gizonezko gazteek baino kostu handiagoi egin behar diete aurre bakarrik bizitzeko etxebizitza libre bat lortzeko. 2016an, Euskadin, 18-34 urte arteko emakumezko soldatapeko batek soldataren % 59,9 erabili behar zuen etxebizitza libre bat erosteko hipoteka ordaintzeko; are gehiago, soldataren % 73,0 bakarrik bizitzeko etxebizitza libre bat alokatu nahi izanez gero. Gizonezko gazteen kasuan ere handiak dira kostuak, baina ez emakumeenak bezain.



Egoera horren ondorioz, emakumeek gizonak baino neurri txikiagoan egiten dute bakarrik emantzipatzearen alde: 16 eta 29 urte bitarteko emakumezko emantzipatuen % 9,7 baino ez da bizi bakarrik, eta adin bereko gizonzko emantzipatuen artean, berriz, ehuneko hori % 15,5 da.

Gazteria eta berdintasuna

Txosten honen atal desberdinetan, gizon eta emakume gazteen artean dauden desberdintasunak nabarmentzen dira.


Horregatik, atal zehatz honetan, aztertu behar dugu Euskadiko gazteriak zer nolako garrantzia ematen dion emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, eta zer iritzi duten azken urteetan berdintasunak izan duen bilakaerari buruz.

Euskadiko hamar gaztetatik zazpik garrantzia handia ematen diote emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari (% 70), eta horren azpitik dago 30 urte edo gehiagoko biztanleen batezbestekoa: % 64 dira gaiari garrantzi handia ematen diotenak.

Alderdi horri dagokionez, desberdintasunak daude emakume gazteen eta gizon gazteen artean: 18 urtetik 29 urtera bitarteko emakumeen % 77k garrantzi handia ematen diote berdintasunari; aldiz, adin-tarte horretako gizonen kasuan, % 64 dira alderdi horri garrantzi handia ematen diotenak.

Nolanahi ere, garrantzi handia ematen diotenak eta dezenteko garrantzia ematen diotenak batzen baditugu, batezbestekoak % 90etik gorakoak dira, bai emakumeetan (% 94), bai gizonetan (% 92).

Azken urteetan, nabarmen egin du gora alderdi honi ematen zaion garrantziak: 2003an, erdira ere ez ziren iristen (% 43) garrantzi handia ematen zioten 15-29 urteko gazteak (% 52, emakumeetan, eta % 35, gizonetan).




Bestalde, hiru gaztetatik bik (% 64) uste dute azken urteetan asko edo dezente aurreratu duela Euskadik berdintasunaren arloan. % 27k, ordea, uste du gutxi aurreratu dela edo ezer ez. Gainerako % 9ak ez du erantzun.

Emakume eta gizon gehienek uste dute aurreratu dela, baina emakumeak gizonak baino kritikoagoak dira alderdi horri dagokionez. Izan ere, gutxi aurreratu dela edo ezer ez dela aurreratu usten duten emakumeen batezbestekoa gizonena baino handiagoa da (hurrenez hurren, % 31 eta % 22).

Desberdintasunak handiagoak dira familiaren eremura mugatzen bagara, eta, are gehiago, enpresen eremuan arreta jartzen badugu.

Familiaren eremuan, gazteen gehiengoak uste du aurreratu dela (% 63). Bai emakumeen artean, bai gizonen artean, erdia baino gehiago dira iritzi hori dutenak, baina, berriz ere, emakumeak kritikoagoak dira: emakumeen % 39k uste du gutxi aurreratu dela edo ezer ez dela aurreratu familiaren eremuan, eta batezbesteko hori % 22ra murrizten da gizon gazteen kasuan.

Enpresen eremuari dagokionez, ez datoz bat gizonen eta emakumeen iritziak: emakume gehienek uste dute (% 55) enpresaren eremuan gutxi aurreratu dela edo ezer ez, eta % 35ek bakarrik uste dute asko edo dezente aurreratu dela; gizonen kasuan, erdiek uste dute (% 50) asko edo dezente aurreratu dela, eta gutxiago dira (% 38) uste dutenak gutxi aurreratu dela edo ezer ez.



Oro har, 18-29 urteko emakumeek uste dute berdintasunaren arloan gehien aurreratu duten eremuak hezkuntza, komunikabideak eta osasuna direla. Aitzitik, gutxien aurreratu duten eremuak (berriz ere, emakume gazteen iritziz) enplegua, kirola eta politika dira.

18-29 urteko Euskadiko emakume eta gizonen duten iritzia, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gehien eta gutxien aurreratu duten eremuei					
GEHIEN AURRERATU DUTEN EREMUAK			GUTXIEN AURRERATU DUTEN EREMUAK		
(%)	Emakumeak	Gizonak	(%)	Emakumeak	Gizonak
Hezkuntza	42	34	Enplegua	52	40
Komunikabideak	31	24	Kirola	36	40
Osasuna	28	22	Politika	27	24
Politika	19	26	Kultura	19	13
Kultura	17	20	Hezkuntza	11	12
Enplegua	14	22	Komunikabideak	11	11
Kirola	12	20	Osasuna	6	9
Ed/ Ee	11	10	Ed/ Ee	10	13
* Batezbestekoen batura 100 baino gehiago da, bi erantzun eman baitzitezkeen.					
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Gazteen argazkiak, 2016)					

Gazteak eta gizarte-zerbitzuak


Gazteek gizarte-zerbitzuak emate-beharrei dagokienez duten egoera aztertzeko, ezinbestekoa da pobreziaren kontzeptura hurbiltzea.

Pobreziari buruzko zenbait kontzeptu daude, eta Eusko Jaurlaritzaren aldizkako Pobreziaren eta Gizarte-zerbitzuen Inkesta (PGEI) aztertzen dira. Mantentze-pobrezia da kontzeptu horietako bat, eta epe laburrean oinarizko beharrak (bereziki zer jan, etxebizitza, arropa eta zapatak izateko gastuekin zerikusia dutenak) betetzeko adina diru ez izateari dagokio. Beste kontzeptu bat metatze-pobrezia da, eta etxe batean epe luzean gutxieneko bizitza-maila egokia

izateko behar diren kontsumo iraunkorreko ondasunak eskuratzeko daukaten ezintasunari lotuta dago.

Benetako pobreziaren tasak kontuan hartzen dituen egoeretan, pobreziaren mantentze- eta metatze-dimentsioetan ageri diren oinarritzko premiak nahikoa ez asetzeko arriskua ez dago nahikoa konpentsatuta eguneroko bizitzan, eta ezinezkoa da pobreziaren bizipenetik aldentzeko adinako gutxieneko ongizatea eskuratzea. Adierazle hori taxutzean, mantentze- eta metatze-adierazleetako posizioaz gain, lotutako beste prekaritate-elementu batzuk ere kontuan hartzen dira, eta azken urtean gabezia-egoerak agertu izana da garrantzitsuena. 2016an, 16-29 urte bitarteko gazteen % 8,1 benetako pobrezia-egoeran zegoen; emakumeak gizonak baino gehixeago (% 8,8 eta % 7,5 hurrenez hurren).


Datuen bilakaerak adierazten digu pobreziak gehiago irauten duela emakumeen artean gizonen artean baino, 2012an krisiaren eraginez tasan gertatutako igoerak bere horretan jarraitzen duelako emakumezko gazteen kasuan, baina gizonetzko gazteen artean badirudi pixkaka beherantz egiten ari dela.



Aurreko datuak ikusita, logikoa da emakumezko gazte gehiago egotea gizonetzko gazte baino Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen dutenen artean.


2017an, 18 eta 34 urte arteko emakumeen % 4,6k DSBEaren jasotzaile titular izan ziren; adin horretako gizonen kasuan, berriz, jasotzaileen ehunekoa txikixeagoa izan zen (% 3,5).

2013tik gutxi aldatu dira datu horiek, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten emakumezko gazteen ehunekoa puntu bat handiagoa izan ohi da jasotzaile diren gizonetzko gazteena baino.




Gazteak eta euskara

Oro har, 15-29 urte bitarteko emakumeek adin bereko gizonek baino neurri handiagoan diote ondo mintzatzen direla euskaraz. Eta hori aztertutako urte guztietan errepikatzen da.




Hala ere, lagunekin nagusiki euskaraz edo euskaraz bezala erdaraz ere aritzen diren emakumezko gazte elebidun (hau da, euskaraz nahiko ondo edo zuzen mintzatzen) direnen ehunekoa gizonezko gazteen artekoa baino txikixeagoa da.



Gazteak eta kultura

Emakumezko gazteek gehiago parte ohi dute kultura- eta arte-jardueretan gizonek baino.

2016an, 15 eta 29 urte arteko emakumeen % 59,4k zioen jarduera artistikoren bat egina zuela azken urtean, baina adin berezko gizonen % 51,0k baino ez zioen hori. Emakumeen parte-hartze handiagoa 2008tik errepikatu da. Nolanahi ere, nabarmendu behar da jarduera artistikoetan duten parte-hartzea handitu egin dela emakumezko gazteen artean bezala gizonezko gazteen artean ere.




Hala ere, emakumeen parte-hartzea ez da handiagoa gizonena baino adierazle honetan kontuan hartutako jarduera guztietan. Gizonezkoen ehunekoak handixeagoak dira instrumenturen bat jotzeari dagokionez, bai eta ikus-entzunezkoekin edo teknologia berriekin zerikusia duten jardueretan parte hartzeari dagokionez ere.

Euskadiko 15-29 urte bitarteko gizonen eta emakumeek proposatu diren jarduera artistikoetako bakoitzean duten parte-hartzea			
(%)	GUZTIRA	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Argazkiak egitea	28,2	31,5	25,1
Idaztea	21,3	23,7	19,0
Margotzea edo marraztea	17,8	22,5	13,3
Bideoak egitea	14,7	13,5	15,8
Musika-tresna bat jotzea	14,7	12,8	16,6
Dantza edo baleta	11,6	17,8	5,7
Beste ikus-entzunezko batzuk (diseinu grafikoa, weba eta abar)	7,5	6,2	8,8
Abesbatza batean edo musika-talde batean abestea	6,0	6,4	5,7
Margotzea ez diren arte plastikoak (zeramika, eskultura eta abar)	6,0	8,6	3,5
Antzerkia egitea	4,9	6,0	3,9
Bertsolaritza	1,9	1,7	2,1
JARDDUERA ARTISTIKOREN BATEAN PARTE HARTZEA	55,1	59,4	51,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteak*, 2016)

Irakurtzeko ohitura ere gehiago dago zabaldua emakumezko gazteen artean gizonezko gazteen artean baino. 2016. urtean, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 60,4k zioen libururen bat irakurri zuela aisialdiagatik (lanagatik edo ikasketengatik irakurritakoak gorabehera) galdetuak izan aurreko hilabeteen; adin horretako gizonezkoen kasuan, ehunekoa nabarmen txikiagoa izan zen, % 48,7. 2008tik egiaztatzen ari da emakumezko gazteek irakurtzeko zaletasun handiagoa dutela.



Liburutegietara eta mediateketara joatea ere ohikoagoa da emakumezko gazteen artean gizonezko gazteen artean baino. 2016an, 15-29 urte bitarteko emakumeen % 41,7k zioen liburutegiren edo mediatekaren batera joan zela aurreko hilean; gizonezko gazteen ehunekoa, berriz, % 35,6 izan zen.


Kultura-esparru edo -ekitaldietara joateari dagokionez ere aldeak daude emakumezko eta gizonezko gazteen artean. Emakumeak gizonak baino gehiago joaten dira antzoki eta museoetara, eta gizonak, berriz, musika-kontzertuetara.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen eta gizonen parte-hartzea espazio edo ekitaldi kulturaletan aurreko hiru hilabeteetan				
(%)		Musika-kontzertuak	Antzerkia	Museoak
2008	Guztira	30,3	8,7	17,7
	Emakumeak	25,6	12,7	19,9
	Gizonak	34,7	4,8	15,6
2012	Guztira	41,6	12,6	17,7
	Emakumeak	37,1	14,9	19,9
	Gizonak	45,9	10,4	15,6
2016	Guztira	38,6	13,4	18,7
	Emakumeak	34,2	15,2	19,5
	Gizonak	42,8	11,8	18,0

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika, 2007-2008) eta Gazteen Euskal Behatokia (seriea: Euskadiko Gazteak)

Gazteak eta kirola

EAEko 15-29 urte bitarteko gazteen % 49,0k astean hirutan edo gehiagotan egiten du kirola. 2012tik 2016ra bitartean, nabarmen handitu da kirol-jarduna emakumezko zein gizonezko gazteen artean. Hala eta guztiz ere, emakumeen kirol-jardun normala (astean hirutan edo gehiagotan) gizonena baino txikiagoa da oraindik ere.




Argitu behar da alde horren arrazoi nagusia dela 15-29 urte bitarteko gizon asko aritzen dela futbolean. Azterketatik futbola kenduko bagenu, ez litzateke horrelako alderik egongo kirola egiten duten gizonen kopuruaren eta emakumeen kopuruaren artean.

Hala ere, oraindik ere aldeak egongo lirateke emakumeek eta gizonek egiten dituzten kirolen artean. Futbolaz (edo areto-futbolaz) gain, gizonak emakumeak baino gehiago aritzen dira saskibaloian eta beste talde-kirol batzuetan, bai eta frontoikoetan ere. Emakumezko gazteek gizonezkoek baino gehiago egiten dute nolabaiteko koreografia dakarten kirolen alde eta ibiltzearen alde. Hurrengo taulako datuak kontuan hartuta, badirudi emakumeek gehiago jotzen dutela indarra erabili beharreko edo kontaktua izan beharreko kirolak ez egitera.

Euskadiko 15 eta 29 urte arteko biztanleek maizen egindako kirolak, sexuaren arabera			
(%)	GUZTIRA	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Futbola, areto-futbola	20	4	34
Mantentzea, pilatesa, muskulazioa	20	21	19
Korrika egitea	19	17	21
Bizikleta	9	10	9
Igeriketa	8	8	8
Aerobica, zumba, gimnastika erritmikoa, dantza	7	12	1
Mendian ibiltzea edo eskalada egitea	7	7	8
Oinez ibiltzea	6	11	2
Saskibaloia	5	3	6
Pala- edo erraketa-kirolak (tenisa, padela...), baina ez frontoia	3	2	3
Frontoia (esku-pilota edo pala)	2	1	4
Beste talde-kirol batzuk (eskubaloia, boleibola, errugbia, hockeya...)	2	1	4
Atletismoa	2	1	2
Ur-kirolak (surfa, arraunketa, piraguismoa...)	2	1	3
Borroka-arteak	2	1	3
Boxeo, kickboxinga	2	1	3
Patinajea, skatea	1	2	1
Yoga	1	1	0
Elurretako kirolak	1	1	0
Beste kirol batzuk	2	2	2
* Galdera irekia, erantzunik iradoki gabe. Gehienez ere bi erantzun; pertsonak bi kirol baino gehiago egiten baditu, gehien egiten dituen biak adierazi ditu. Ehuneko batura, guztira, 100dik gorakoa da, bi erantzun eman zitezkeelako.			
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)			

Gazteak, aisialdia eta denbora libre


Denbora libre oinarritzko premiak (jatea, lo egitea...) ase eta laneko betebeharrak, ikastekoak eta/edo beste pertsona batzuk zaintzekoak bete ondoren gelditzen den denbora da. Gizonezko gazteek diote emakumezkoek baino denbora libre luzeagoa dutela. 15-29 urte bitarteko gizonen % 42,3k dio egunean lau orduetik gorako denbora libre duela, baina ehuneko hori % 32,3ra jaisten da emakumezko gazteen artean. Adin horretako emakumeen artean, ordea, % 41,5ek egunean hiru orduetik beherako denbora libre du, eta egoera horretan gizonezko gazteen % 30,8 dago.




Musika entzutea (% 81,9), kalean egotea (% 56,8) eta filmak edo sailak ikustea (% 52,5) dira gazteek eguneroko denbora librean gehien egiten dituzten jarduerak, eta horretan ia ez dago alderik gizonezko eta emakumezko gazteen artean. Jadanik erdiek baino gutxiagok (% 43,1) diote bideoak ikusten dituztela egunero *Youtube* webgunean; laurdenek (% 23,6) diote kirola egiten dutela aisialdian egunero; eta gutxiagok diote egunero egiten dutela aisialdi-jarduera hauetako bakoitza: kontsolekin edo ordenagailuko edo sakelako jolasekin aritu (% 14,8); tabernetara joan (% 14,1); lokalean egon (% 6,7); edo, *hobby* moduan, eskulanak egin, josi edo kozinatu (% 6,5). Gazteen % 5ek baino gutxiagok bestelako jarduerak dituzte egunero.

Kirola egunero egitea zabalduago dago gizonezko gazteen artean emakumezko gazteen artean baino (% 32,2 eta % 14,6, hurrenez hurren), “gazteak eta kirola” atalean esandakoaz bat.

Aisialdi digitaleko jarduerak ere, besteak beste, kontsolekin edo ordenagailuko edo sakelako jolasekin aritzea, *Youtube* webguneko bideoak ikustea, bideoak jartzea Interneten, edo blogetan idaztea, gehiago egiten dituzte egunero gizonezko gazteek emakumezko gazteek baino (% 54,4 eta % 44,6).




Lokalean egunero egotea ere ohikoagoa da gizonezko gazteen artean (% 9,9) emakumezko gazteen artean (% 3,3) baino. Hori logikoa da kontuan hartzen bada gazte-lokal bateko kide diren gizonezko gazteen ehunekoa emakumezko gazteen ehunekoa baino nabarmen handiagoa dela (% 28,3 eta % 11,9, hurrenez hurren, 2016an).




Gazteak, osasuna eta prebentzioa

15-29 urte bitarteko gazteek beren osasunaz duten pertzepzio subjektiboa oso ona da, % 91ren ustez ona edo oso ona delako. Oro har, ez da alderik ikusten gizonezko gazteen eta emakumezko gazteen artean, baina “oso osasun ona” dutela diotenei soilik erreparatzen badiegu, gizon gehiago aurkitzen ditugu emakume baino (% 48 eta % 40).

Pertzepzio desberdin hori azaltzeko litezkeen arrazoietakoa bat da emakumezko gazteek gizonezko gazteek baino neurri handiagoan diotela arazo psikologikoak dituztela (antsietatea, estresa, depresioa...); 2016an, 15-29 urte bitarteko emakumeen % 26k zioen horrelako arazoren bat izan zuela azken urtean, baina gizonen artean ehuneko hori dezente txikiagoa zen, % 13. Alde horren oinarrian, bestalde, hiru egoera egon daitezke: alde batetik, emakumezko gazteek kezka eta estres psikologiko handiagoa izatea egoera jakin batzuetan; bestetik, emakumeek osasunaz ikuspegi orokorragoa izatea, zeinean alderdi emozionala fisikoa bezain garrantzitsua baita, eta gizonen ikuspegia, berriz, baliteke gehiago oinarritzea alderdi fisikoan; eta, azkenik, emakumeek jendaurrean gehiago onartzea dauzkaten arazo psikologikoak.



Nolanahi ere, eta aurreko datuak ikusita eman dezakeena gorabehera, suizidioaren ondoriozko heriotza-tasa, normalean, txikiagoa da emakumezko gazteen artean gizonezko gazteen artean baino. 2016an, kopuruak nahikoa parekatu dira, emakumezkoen tasak gora egin duelako, eta gizonezkoenak, berriz, behera.




Osasun ona izateko prebentzio-ohiturei dagokienez, ez da alde handirik ikusten emakumezko gazteen eta gizonezko gazteen: batzuen zein besteen arteko gehienek diote elikadura orekatua dutela, bizimolde aktiboa, eta ez dutela erretzen.

2016an, 15-29 urte bitarteko gizonen % 84k eta adin bereko emakumeen % 81ek zioen elikadura orekatu samarra zuela.


Urte horretan bertan, gizonezko gazteen % 86k ere zioen bizimodu aktibo samarra zuela. Emakumezko gazteen artean ehunekoa txikixeagoa zen, % 82, baina horiek ere gehienak ziren. Izan ere, emakumeek gizonek baino kirol gutxiago egin arren denbora librean, ohiko joan-etorrietan oinez ibiltzen dira gizonak baino gehiago (15-29 urte bitarteko emakumeen % 85 oinez doa egunero ikasten duen lekura, lan egiten duenera edo ohiko beste edozeinetara, eta gizonen artean ehuneko hori txikixeagoa da, % 79). Bizimodu aktibo samarra egiten dutela dioten emakumeen ehunekoa lau puntu handitu da 2012 eta 2016 artean.

Azkenik, 2016an, emakumeen % 65ek zioen ez zuela erretzen, eta ehuneko hori gizonezko gazteena baino handixeagoa da (% 59).


Erretzen ez duten gazteen ehunekoa (inoiz erre ez dutenak eta lehen erretzen zuten arren erretzeari utzi diotenak kontuan hartuta) nabarmen handitu da 2012tik, orduan emakumeen % 53k eta gizonen % 46k baitzioen ez zuela erretzen.



Osasunerako arriskutsuak diren jokabideei dagokienez, besteak beste horretan ikusten da argien desberdinak direla emakumeen eta gizonen sozializazioak. Oro har, arriskua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da fenomenoaren maskulinizazioa; izan ere, badirudi gazteek berezkoa duten zaurtezintasun-sentsazioa biziago agertzen dela gizonen artean emakumeen artean baino. Hartara, gizonezko gazteek emakumezkoek baino puntuazio handiagoa izateko joera dute azaldutako arrisku-jokabide guztietan. Galdetuak izan aurreko hilabetea erreferentziazat hartuta, 2016an gizonek emakumeek baino proportzio handiagoan esaten zuten mozkortu zirela, legez kanpoko drogak hartu zituztela (kalamua, kokaina, pilulak eta abar) eta/edo onartutako alkohol-tasa gaindituta gidatu zutela edo gidatzen zuen pertsona batekin joan zirela autoan.




Era berean, gizonetako gazteek emakumezkoek baino neurri handiagoan aitortzen dute sexu-harreman arriskutsuak (haurduntza-arriskukoak edo sexu-transmisiozko gaixotasunak gertatzekoak) izatea. 2016an, 15-29 urte bitarteko gizonen % 13,7k aitortzen zuen sexu-harreman arriskutsuren bat izan zuela aurreko urtean; emakumeen artean, ehuneko txikixeagoa zen, % 10,8. Nolanahi ere, sexu-harreman arriskutsuak izan dituzten gazteen proportzioak behera egin du 2012tik, bai gizonen artean bai emakumeen artean.



Jokabide arriskutsu horien ondorioz, gizonetako gazteen artean handiagoa da droga-mendekotasunen ondorioz tratamendua hasitakoen tasa (2,9 gizon 15-29 urte bitarteko 1.000 gizoneko; adin bereko emakumeen artean, berriz, tasa 0,6 da 1.000 emakumeko), bai eta GIBaren ondoriozko infekzio berrien tasa ere (1,5 gizon 15-29 urte bitarteko 1.000 gizoneko; adin bereko emakumeen artean, berriz, tasa 0,4 da 1.000 emakumeko). Datu horiek 2016koak dira, baina aztertutako urte guztietan handiagoak dira gizonen tasak emakumeenak baino.


Azkenik, bidezkoa da emakumeei dagozkien osasun-kontu batzuei erreparatzea: nerabeen haurdunaldiak eta borondatez etetea nerabeen eta gazteen haurdunaldia.

Nerabeen haurduntza-tasak adierazten digu 15-17 urteko zenbat emakume dauden haurdun adin-tarte horretako 1.000 emakumeko. Haurdunaldi-kopurua kalkulatzeko, adin horretako amen artean izandako jaiotzak eta adin bereko amen haurdunaldien borondatezko etenak kontuan hartzen dira. Nerabeen haurduntza-tasa askoz handiagoa da atzerriar nazionalitateko nerabeen artean.



Haurdunaldien etete-tasak adierazten du 15-29 urte bitarteko emakumeen zenbat haurdunaldi eteten diren nahita adin-tarte horretako 1.000 emakumeko. Tasa hori 1.000 emakumeko 12,5 izan zen 2016an, baina ez da berdina adin-talde guztietan; 20-24 urtekoen artean, tasa txikiagoa izan zen, 16,2.


Tasak gora egin zuen 2011tik aurrera, 2010ean abortuari buruzko legea onartu ondoren (2/2010 Lege Organikoa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa). 2014tik aurrera behera egin du, baino 2010. urtea baino lehen zeuden mailetara iritsi gabe).



Gazteak eta ingurumena

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2017an egindako “Herriarrek Ingurumenarekiko dituzten jarrerak” ikerketaren arabera, 18-29 urte bitarteko gazteen % 99ren ustez oso edo nahiko garrantzitsua da ingurumena babestea.

Gazteen Euskal Behatokiaren lau urtean behingo *Euskadiko Gazteak* ikerketetan, ingurumena babesteko eguneroko jarrerei buruzko galdera batzuk jasotzen dira 2012tik. 2016ko datuek adierazten dute 15-29 urte arteko gazte gehienek birziklatzeko etxeko zaborra bereizi ohi dutela hondar motaren arabera (% 64), eta ur-kontsumoa mugatzen ahalegintzen direla (% 61). Bi jokabideok gehixeago daude zabaldua emakumeen artean gizonen artean baino, eta hori bai 2012an bai 2016an egiaztatzen da.



Ingurumenarekiko beste jokabide on bat, erosketak egitean poltsa edo orga eramatea, ohikoagoa da emakumezko gazteen artean gizonezko gazteen artean baino (% 62 eta % 46 hurrenez hurren 2016an), baina kontuan hartu behar da zer dagoen alde horren atzean: emakumeak gehiago joaten dira erosketak egitera gizonak baino.

Gazteak eta kontsumoa

15-29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok (% 55,8) irizpide arrazional batzuk erabiltzen dituzte kontsumitzeko orduan: erosketaren prozesu logikoa dela eta, % 68,8k aurretik pentsatuta izaten dute zer erosi nahi duten; % 53,5ek erabakita izaten dute zenbat gastatu nahi duten; % 55,8k, produktua erosi aurretik, zenbait establezimendutako prezioak alderatzen dituzte; % 47,7k produktuaren bermea egiaztatzen dute; % 67,4k erosketaren faktura edo tiketa egiaztatzen dute; eta % 81,4k erreklamazioa aurkezten dute, arazorik izanez gero.

Gastuaren kudeaketarekin lotutako jokabideak areagotu egin dira 2010etik 2013ra, krisi ekonomikoaren eta diru-baliabide gutxiago izatearen ondorioz, segur aski: zenbat gastatu aurretik pentsatuta izaten dutenen ehunekoa zortzi puntu igo da, eta zenbait

establezimendutan prezioak alderatzeko ohituraren ehunekoa, berriz, sei puntu eta erdi handiagoa da 2010eko ehunekoa baino.

Erosketa-prozesuaren arrazionaltasunarekin lotutako jokabide horiek kontuan hartuta, kontsumo arrazionalaren indizea eratzen da. Hori dela eta, jotzen da kontsumo arrazionala egiten dutela aipatutako sei jokabideetatik lau egiten dituztenek. Indize horren arabera, esan daiteke Euskadin, 2013an, gazteen % 55,8ren kontsumoa arrazionala dela.

Gizonezko gazteen kontsumoa zertxobait arrazionalagoa da emakumezko gazteena baino (% 57,6 eta % 54,0 hurrenez hurren), batez ere gizonen artean gehiagok pentsatzen dutelako alde aurretik zer erosi, maizago egiaztatzen dutelako bermea eta emakumeek baino gehiago erreklamatzeko dutelako arazoren bat izanez gero. Emakumeek diotenez, gauza bakarra egiten dute gizonak baino gehiago: faktura edo erosketa-tiketa aztertzea, eta, nolana ere, aldea txikia da.

Kontsumo arrazionalari lotutako hurrengo jokabideetako bakoitza izan ohi dutela 2013an dioten Euskadiko 15-29 urte bitarteko gizon eta emakumeen ehunekoa			
(%)	GUZTIRA	Sexua	
		Emakumeak	Gizonak
Erosi nahi dena aurrez erabakitzea	68,8	71,9	65,6
Aurrez erabakita izatea zenbat gastatu	53,5	54,7	52,3
Prezioak alderatzea zenbait establezimendutan	55,8	56,3	55,3
Produktuaren eta/edo zerbitzuaren bermea egiaztatzea	47,7	50,7	44,7
Erosketa-faktura edo -tiketa egiaztatzea	67,4	65,9	68,9
Arazoren bat izatekotan erreklamazioa egitea	81,4	82,8	79,9
KONTSUMO ARRAZIONALAREN INDIZEA	55,1	59,4	51,0
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)			

Kontsumoaren arrazionaltasunari izan beharrean kontsumoaren etikari erreparatzen badiogu, emakumeek gizonak baino neurri handiagoan kontuan hartzen dute ekoizpenean gizarte-bidegabekeriaren bat izan den; adibidez, haur-esplotazioa eta abar. Emakumeen % 19,0k dio horretan pentsatzen duela produktu bat erosi baino lehen; gizonezko gazteen artean, berriz, % 19,0k.

Gazteak eta informazioaren gizartea

Gazteez eta informazioaren gizarteaz hitz egiteko, sare sozialez aritu behar da. Euskadin, 15-29 urte bitarteko pertsonen % 97,5ek egunero erabiltzen ditu sare sozialak, eta pertsona horiek egunero konektatzen diren sareak 3 (2,9) dira batez beste.

Sare sozial horien eguneroko erabilerari dagokionez, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte egunero Facebook, Instagram eta Snapchat; mutilek, aldiz, neskek baino gehiago erabiltzen dute egunero Youtube. Spotify, Pinterest eta Wattpad-era egunero konektatzeari dagokionez, nesken ehunekoa, berriz ere, mutilena baino pixka bat handiagoa da; aitzitik, mutilek baino proportzio txikiagoan konektatzen dira egunero Twitter eta Telegramera.

Adinak ere aldeak ezartzen ditu gazteen artean, eta, horregatik, sexua eta adin-taldeak batera aztertu behar dira. Azterketa horren arabera, 15-19 urteko neskek dira sare sozialen erabiltzaile nagusiak, kolektibo hori konektatzen baita gehien proposatutako hamabi sareetatik

zazpitara: WhatsApp, Instagram, Snapchat, Twitter, Spotify, Ask.fm eta Wattpad (egunero gehien konektatzen direnatarik gutxien konektatzen direnatar). Bitxia da Twitter sarearen kasua, mutilek oro har gehixeago erabili arren, azterketa xehatuago hau egitean ikusten dugulako sare horretan egunero egiten diren konexioen ehuneko handienak 20 urtetik beherako neskei dagozkiela.

Bestalde, Facebook sarearen erabiltzaile nagusiak 20-24 urteko emakumeak dira.

Sare sozialen eguneroko erabilera-ehunekoa Euskadiko 15-29 urte bitarteko biztanleen artean, sexua eta adina batera kontuan hartuta							
Sare (%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
WhatsApp	96	98	93	97	96	97	95
Facebook	56	40	30	76	55	70	62
Instagram	40	69	56	45	40	22	18
Youtube	40	41	51	37	47	29	38
Twitter	22	31	24	22	28	10	20
Snapchat	19	56	35	10	12	3	3
Spotify	14	20	18	16	10	11	12
Ask.fm	3	10	6	0	1	0	0
Telegram	2	0	4	1	3	1	2
LinkedIn	2	1	0	1	1	3	5
Pinterest	1	3	0	3	1	1	1
Wattpad	1	4	0	0	1	0	0
Bestelakoak	2	2	1	1	2	1	3
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)							

Azken hiru hilabeteetan ikasketengatik eta/edo lanagatik Internet erabiltzeari dagokionez, 15-35 urteko emakumeek adin-tarte bereko gizonak baino gehiago erabiltzen dute.

Eustat-en Informazioaren Gizartearen Inkestako datuen arabera, 2017an Euskadiko 15-35 urteko emakumeen % 39,4k matrikulazioak edo beste kontsulta akademikoak egin zituen Internet bidez aurreko hiru hiletan; ehunekoa txikixeagoa zen adin horretako gizonen kasuan (% 31,8). Lana bilatzeko aurreko hiru hiletan egindako gestioei dagokienez, emakumeen ehunekoa handixeagoa da berriz ere gizonena baino: % 23,7 eta % 20,2.


Gazteak eta boluntariotza

Boluntariotza-lanak egiten dituzten 15-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa ia bikoiztu egin da 2012tik 2016ra, eta % 6,5etik % 11,5era aldatu da.

Datu horiek 2016ko Euskadiko Gazteak lanekoak dira, non boluntariotza-jardueraz definizio hau ematen baita: "... beste pertsona batzuei edo komunitateari laguntzeko norberaren borondatez egiten diren ordaindu gabeko lanak, astean gutxienez ordubeteko dedikazioa eskaintzea eskatzen dutela. Definizio horretan hainbat jardura biltzen dira; hala nola, monitore edo begirale izatea aisialdiko jardura edo irteeretan, artearekin edo kulturarekin loturiko jardueretan, kirol-taldeetan entrenatzaile izatea... edo GKEei (DYA, Gurutze Gorria...) laguntzea, desgaitasunak dituztenei edo etorkinei laguntzea eta abar, baina beti ordainsaririk jaso gabe. Beraz, beste hainbat lan alde batera geratzen dira; esate baterako, jaiak edo jaialdiak antolatzea eta abar, unean uneko jardunak baitira, eta finkatutako

definizioari jarraikiz, jarduerak jarraitutasunez egin behar dira. Aitzitik, denbora-tarte labur batean baina dedikazio eskusiboz edo ia eskusiboz egiten diren boluntario-jarduerak bai sartzen dira definizio horretan, hala nola: atzerriko boluntario-lanetan, udaleku berezietan eta abarretan parte hartzea.”


Horrelako jardueretan, emakumezkoen presentzia gizonezkoena baino handiagoa da; 2016an, emakumezko gazteen % 15,1ek zioen boluntario-lanak egiten zituela, eta gizonezko gazteen % 8,0k zioen hori.



Gazteak eta landako eta itsasoko ingurunea

Euskadiko nekazaritza-sektorea zaharkituta dago. Eustaten “Nekazaritzako ustiatgien egituraren inkesta” lanaren arabera, 2016an ustiatgien % 3,0an baino ez zen titularra 35 urtetik beherako pertsona bat.

Sektore zaharkitua izateaz gain, sektore maskulinizatua da, are gazteen artean ere. Titularra 35 urtetik beherako pertsona bat duten hiru nekazaritza-ustiatgegitik bitan, titular hori gizona da, eta ustiategi horietako hirutik batean, berriz, titularra emakumea da.



Gazteak eta mugikortasuna

Honako hauen arabera erabakitzen da lekuz aldatzeko zer bitarteko erabili: distantzia, bidaia egiteko arrazoia, garraio-zerbitzuen eta -azpiegituren eskaintza, eta, azkenik, lurralde-egitura bera.


2016an, 15-29 urte bitarteko EAE gazteen mugikortasun-ereduek adierazten dute oinez ibiltzea dela lekuz aldatzeko modurik ohikoena. % 82k oinez egiten ditu ohiko lekualdaketak egunero edo ia egunero. Garraio publiko kolektiboa % 40k erabiltzen du egunero edo ia egunero. Autoa eta motoa, hau da, ibilgailu motordun pribatuak, % 26k erabiltzen ditu egunero edo ia egunero, eta, azkenik, bizikleta % 8k erabiltzen du egunero edo ia egunero.

Adinak eta, berorri lotuta, okupazio nagusia aldatzeak aldeak ezartzen ditu lekuz aldatzeko moduan. 25 urte bete ondoren, lanagatik lekuz aldatzen direnak gehiengoa direnean, behera egiten du oinez edo bizikletaz doazen ehunekoak, bai eta garraio publiko kolektiboan mugitzen direnen ehunekoak ere. Zenbait arrazoik azaltzen dute hori: ohikoa da lantokia ikastetxea baino urrunago egotea, eta, horregatik, batzuetan zaila da bertara oinez edo bizikletaz iristea; ikastetxeek garraio publikoren bat izaten dute hurbil, edo, bestela, eskola-autobusak izaten dira haietara iristeko, baina hori gutxiagotan gertatzen da lantokietan, lanorduak batzuetan ez datoz bat garraio publikoaren ordutegiarekin eta abar. 25 urtetik aurrera, berriz, gora egiten du ibilgailu motordun pribatuen mugitzen diren gazteen ehunekoak. Horren arrazoia dira, alde batetik, lehen aipatutako distantzia-arazoa, garraio publikoaren ordutegia... eta, bestetik, nork bere ibilgailua errazago erosi ahal izatea.

Nolanahi ere, oro har, ikusten da emakumezko gazteak gizonezko gazteak baino gehiago mugitzen direla oinez (emakumeen % 85 hala mugitzen da egunero edo ia egunero; eta gizonen artean, % 79), eta, era berean, gehiago erabiltzen dute garraio publiko kolektiboa (emakumeen % 45ek egunero edo ia egunero erabiltzen du; eta gizonen artean, berriz, % 35ek).

Baina ibilgailu motordun partikularrak (autoa edo motoa) gehiago erabiltzen dituzte gizonezko gazteek emakume gazteek baino; eguneroko erabilera-ehunekoak hauek dira: % 30, gizonei dagokienez; eta % 22, emakumeen kasuan.


Bizikletari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko aldeak oraindik handiagoak dira, egunero edo ia egunero bizikletaz mugitzen diren gizonezko gazteen ehunekoa (% 11) emakumeena baino bi aldiz handiagoa (% 5) baita. Bizikleta erabiltzea, batzuetan, arriskutsua da, eta badirudi gizonek errazago hartzen dituztela arrisku horiek emakumeek baino. Bizikletaz mugitzeak, halaber, ahalegin fisikoa egitea eskatzen du, eta ondorioak ditu itxura fisikoan, eta, beharbada, horien ondorioa da emakumeen eta gizonen arteko alde hori.




Gazteak eta bizikidetza

Bizikidetzaz hitz egitean, konfiantzaz, tolerantziaz eta dibertsitatea errespetatzeaz aritu behar da.

2016an, 18 eta 29 urte arteko pertsonen % 48k dio oro har jende gehienaz fida daitekeela. Baina % 44k dio zuhurtzia inoiz ez dela aski gainerakoekin harremana izatean. Jendearenganako konfiantza, oro har, gehiengoduna izatera iritsi gabe ere, handitu egin da aurreko urteekin alderatuta; 2013an eta 2015ean gazteen % 42k zioen fidatzen dela, eta 1996an, berriz, % 40k. Emakumezko gazteak mesfidatiagoak izan ohi dira gizonezko gazteak baino.



Emakumezko gazteen konfiantza txikiago hori ulergarria da, kontuan hartuta 15-29 urte bitarteko hiru emakumetik batek dioela beldurra duela gauez herritik edo auzotik bakarrik ibiltzen denean (% 34,2). Beldur-sentsazioa askoz handiagoa da emakumeen artean gizonen artean (% 3,9) baino, eta handitu egin da azken urteetan.




20 urtetik beherako neskek dute gauez bakarrik ibiltzeko beldurrik handiena (% 44).

Gauez kaletik bakarrik ibiltzeko beldurra moduetako bat da emakumeek mugatuta eduki ahal izan dezaten aske mugitzeko eta gune publikoez gozatzeko aukera.

Bizikidetzaz mintzatzean, tolerantzia ideologikoa da beste gai garrantzitsu bat. *Euskadiko Gazteak* ikerketetan, gazte batzuk bestelako ideiak, sinesmenak edo balioak dituzten pertsonekin zer neurritan ez dauden gustura jakinda neurtzen da tolerantzia ideologikoa.

2016an, EAEko gazteen % 16,6k zioen “oso deseroso” edo “nahiko deseroso” sentitzen zela bestelako ideiak, sinesmenak edo balioak zituzten pertsonekin. Gutxienena izan arren, ehuneko horrek goranzko bilakaera izan du 2000 eta 2016 artean. 2000an, gazteen % 9,7 ez zegoen gustura bestela pentsatzen zuten pertsonekin; ehunekoa zertxobait igo zen 2004an (% 10,4), eta beste zertxobait gehiago, % 11,5era, 2008an; geroago, % 17,3ra igo zen 2012an, eta % 16,6 izan zen 2016an.


2012tik, gizonezko gazteek emakumezko gazteek baino neurri handiagoan aitortzen dute ez daudela gustura bestelako pentsaera dutenekin: 2016. urtean, gizonezko gazteen % 19,0k eta emakumezko gazteen % 14,2k.



Bi adierazlek neurtzen dute atzeritarren immigrazioarekiko tolerantzia (edo tolerantziarik eza): Euskadin atzeritar gehiegi dagoelako ideiak (gogora dezagun ezen, 2016ko urtarrilaren 1ean, etorkinak Euskadiko biztanle guztien % 6,9 baino ez zirela) eta etorkin gehiago sartzearen aurka egoteak.


Euskadin atzeritar gehiegi zegoelako ideia gehiago zabaldu zen krisi ekonomikoko eta enplegu faltako urteetan, eta horrela pentsatzen zutenak 15-29 urte bitarteko gazteen % 44,6 ziren 2012an. 2016an, berriz, ehunekoa txikiagoa zen, % 29,4. Ez da funtsezko alderik ikusten urte hauetan gizonen eta emakumeen iritzian.


Aurrekoaren ildotik, urteotan gazteei galdetu ohi zaie zein den, beraien ustez, immigrazio-politikarik egokiena. Krisiarekin batera, gora egin zuen egokiena etorkin gehiagoren sarrera debekatzea zela uste zutenen ehunekoak, eta % 9,8 izan zen 2012an. 2016an, ehuneko hori ia erdiraino jaitsi zen (% 5,2). Kontu horretan, bai, zenbait desberdintasun daude emakumezko eta gizonezko gazteen iritzietan, 15-29 urte bitarteko gizonek adin bereko emakumeek baino gehiago aldeztu dutelako etorkinen sarrera debekatzea.



Sexu-dibertsitatearekiko tolerantziarekin zerikusia dutenak dira beste bizikidetza-adierazle batzuk. Horretan, emakumeak gizonetako gazteak baino irekiagoak dira, eta gehiago aldezen dute sexu bereko pertsonak ezkontzea, bai eta sexu-aldaketa ere.

Hala ere, esan behar da gizonetako eta emakumetako gazteen arteko aldeak txikitu egin direla 2016an, batez ere horrelako kontuen alde dauden gizonetako gazteen ehunekoak gora egin duelako.





Gainera, 15-29 urte bitarteko gazteen % 82 oso edo nahiko ados dago pertsona batek bizitzan zehar sexu-hautua alda dezakeelako eta harremanak gizonekin edo emakumeekin izan ditzakeelako ideiarekin. Ehuneko hori nabarmen handitu da 2012tik, orduan % 66 izan baitzen eta 2016an, berriz, % 82 izan baita.

Egindako baieztapen horrekin ados dauden emakumezko gazteak gizonezko gazteak baino gehiago dira: % 86 eta % 79, hurrenez hurren.

Gazteak, autonomia eta erantzunkidetasuna

Gazteen autonomiaz eta erantzunkidetasunaz mintzatzeko, lehenik eta behin esan behar da zenbat gazte dauden emantzipatuta, zenbat bizi diren bikotekidearekin, eta zenbatek dauzkaten seme-alabak.

Gazteen Euskal Behatokiak egindako “Euskadiko gazteak 2016” lanaren emaitzen arabera, 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuak % 24 ziren. Eta bikotekidearekin (ezkonduta zein ez) bizi zirenei bagagozkie, ehunekoa 15-29 urte bitarteko gazte guztien % 15 baino ez zen.

Bikotekidearekin (legez ezkonduta zein ez) bizi diren emakumezko gazte emantzipatuen ehunekoa egoera bereko gizonezko gazteena baino askoz handiagoa da: % 21 eta % 11 hurrenez hurren.

Pertsona horiei galdetu zitzaion nola banatzen zituzten etxeko lanak bikotekidearekin. Emaitzek adierazten dute oraindik ere emakumeek gizonek baino lan gehiago egiten dutela etxean: garbiketa, otorduak prestatzea, erosketak eta abar.

Nolanahi ere, etxeko lanen zama beren gainean daramatelako emakumeen beren pertzepzioak behera egin du, eta, aldi berean, gora egin du lan horiek bikoteko bi kideen artean erdi bana egiten direla pentsatzen duten gizonen eta emakumeen ehunekoak.

Bikote moduan emantzipatuta bizi diren Euskadiko 15-29 urte bitarteko gizonak eta emakumeek etxeko lanak bikotekidearekin banatzeaz duten iritziaren bilakaera						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	2008	2012	2016	2008	2012	2016
Emakumeak lan guztiak edo ia guztiak egiten ditu	48	40	22	21	26	17
Lanak erdi bana egiten dira	48	45	59	64	51	67
Gizonak lan guztiak edo ia guztiak egiten ditu	2	1	3	10	8	5
Beste pertsona batek egiten ditu lan horiek *	0	0	1	0	0	2
Ed/ Ee	2	15	14	4	15	9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
* Erantzun aukera hori ez zitzaizen eskaini inkestatutako pertsonen, eta modu irekian erantzun zuten.						
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (seriea: Euskadiko Gazteak)						

Kontuan hartzen badugu egunero batez beste zenbat denbora erabiltzen duten etxeko lanak egiteko Euskadiko 16-29 urte bitarteko gizonak eta emakumeak, non eta norekin bizi diren gorabehera, ikusten dugu emakumezko gazteek gizonazko gazteek baino denbora gehiago hartzen dutela etxeko lanetarako, baina emakumeen eta gizonen arteko aldea txikitzen ari da, gizonen inplikazio handiagoaren ondorioz eta emakumeak lan horietan ematen duten denbora zertxobait gutxitu delako.

Euskadiko 16-29 urte bitarteko gizonak eta emakumeak etxeko lanak egiteko egunero batez beste erabiltzen duten denboraren bilakaera			
(h:mm)	Guztira	Emakumeak	Gizonak
2003	0:57	1:21	0:34
2008	0:59	1:24	0:35
2013	1:02	1:10	0:54
Iturria: EUSTAT (Denbora-aurrekontuei buruzko inkesta)			

Bestalde, 30 urtetik beherako gazteen % 9k baino ez du seme-alabaren bat. Ama diren emakumezko gazteen kopurua aita diren gizonazko gazteena halako bi da (% 12 eta % 6 hurrenez hurren). Gainera, esan behar da aita edo ama diren gazteen kopurua nabarmen handitu dela 2000. urtetik, orduan gazteen % 3k baino ez baitzuen seme-alabarik. Horren arrazoia, neurri handi batean, immigrazioa da, atzeritarrek gazteago direla izaten baitituzte umeak, eta, hartara, 2016an, ikusten dugu atzerrian jaioetako gazteen % 30 aita edo ama zela, eta Euskadin jaioetako gazteen artean, berriz, ehuneko hori % 5 zela.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2017an familiari buruz argitaratutako "Ikuskerak 10" azterlanean, bikotekidea zuten edo izan zuten eta seme-alabak zituzten pertsonen egindako galdera baten emaitzak aurkeztu ziren. Galderaren xedea zen jakitea galdetuak gustura zeuden seme-alabak zaintzeko lanak bikotekidearekin banatuta zeuzkaten moduarekin. 30 urtetik beherako emakumeen % 70ek zioen oso edo nahiko pozik zegoela banaketa horrekin, baina % 26k zioen ez zegoela oso edo batere pozik. Gizonazko gazteak gusturago zeuden, eta berorietako inork ere ez zuen esan ez zegoela pozik lanetan banaketarekin.

Seme-alabak dituzten eta bikotekidea duten edo izan duten Euskadiko 18-29 urte bitarteko gizonak eta emakumeek seme-alabak zaintzeko lanak bikotekidearekin banatuta daukaten moduak eragiten dien gogobetetasunaz duten iritzia		
(%)	Emakumeak	Gizonak
Oso pozik	37	82
Nahikoa pozik	33	15
Ez oso pozik	16	0
Inola ere ez pozik	10	0
Ed/ Ee	4	2
GUZTIRA	100	100
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Ikuskerak 10)		

Pertzepzio desberdin horrek adierazten du gazteen artean ere hartzen dituztela emakumeek gizonak baino neurri handiagoan beren gain seme-alabak zaintzeko lanak.

Kanpoko Euskal Etxeetako gazteak

2006an, Eusko Jaurlaritzak zeuzkaten instalazioei, jardueri eta bazkideei buruzko datuak emateko eskatu zien Euskal Etxeei.

Euskal Etxe batzuek ez zuten daturik bidali, baina emandakoekin eginiko kalkuluen arabera¹, 30 urtetik beherakoa zen bazkideen % 20; zehazkiago, 18-29 urte zituen % 13k, eta gainerako % 7a, 18 urtetik beherakoa zen.

2019an euskal gizataldeen beste kongresu bat egitea pentsatuta dago, eta ordurako datuok eguneratzeko beste eskaera bat egingo da.

Bestalde, 1996. urtetik, Eusko Jaurlaritzak *Gaztemundu* programaren deia egiten du, Euskal Etxeetako gazteek egonaldi bat egin dezaten Euskadin, ingurunea, ohiturak eta euskal kultura ezagutzeko. Programa horretan 18-35 urteko ia 800 gaztek parte hartu dute 1996tik 2017ra bitarte. Pertsona horietako asko dira Euskal Etxeetako egungo zuzendaritzetako kide, edo, bestela, ardura-postuak dituzte.

¹ Datuak Euskal Gizataldeen IV Mundu Biltzarrean aurkeztu ziren, "Centros vascos y socios/as" txostenean [sarean]. Hemen eskuratu daiteke:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/03_congreso2007/es_intro/adjuntos/zubigintzan_es.pdf

[Kontsulta: 2018/05/22]

Gazteentzako ekipamenduak eta zerbitzuak: 21.-26. artikulua

Gazteriaren Euskal Legeak araututako ekipamenduak eta zerbitzuak baliatzeari dagokionez, azterketak, sexuaren arabera bereizita, adierazten du ezen, aztertutako kasu guztietan, emakumeak ondo ordezkaturik daudela, eta askotan onuradunen erdiak baino gehiago direla.

Gazteei zuzendutako jarduerak: 24. artikulua

Ildo horretan, Auzolandegiak programan, nesken parte-hartze handiagoa ezin da ordezkari izan, 2017an erabiltzaileen % 74 baitira.

Gazteen prestakuntza-arloko titulazioa: 25. artikulua

Aurreko ildoari jarraituta, gazteen hezkuntza-arloko titulazio ez-formala eskuratzeari dagokionez, zehazki, haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza jardueretarako begirale- eta zuzendari-diplomak eskuratzeari dagokionez, neskek neurritz gain ordezkaturik daude. 2017an emakumeak, zehazki, begirale-titulua lortu zuten pertsonen % 71 dira, eta zuzendari-titulua lortu zutenen % 63.

Txartelak ematea. 26. artikulua

Gazte-txartela lortzen dutenak ere emakumeak dira gehienbat. 2017an neskek dira 14-29 urte bitarteko erabiltzaileen % 59.

ONDORIOA BALIABIDEAK BALIATZEARI DAGOKIONEZ:

Egoera orokorra ebaluatu ondoren, honako hau ondoriozta dezakegu:

Gazteria Zuzendaritzak zuzenago kudeatzen edo arautzen dituen ekipamenduei eta zerbitzuei dagokienez –gazte-txartela, lan-esparruak, lankidetzak eta boluntariorik gabeko programak–, mutilek eta neskek orekatuak baliatzen dituzte bitartekoak, edo, bestela, desoreka nesken aldekoa da.

Politika transbertsalekin zerikusia duten baliabideei dagokienez, berriz, diskriminazio adierazgarriak daude mutilen eta nesken artean gaztaroaren haste beretik, eta desparekotasun-eredu batzuk ezartzen hasten dira, geroago, helduaroan, betikotzen direnak.

Sexuen arteko parekotasuna bultzatzeko edo zuzenketak egiteko etorkizuneko jardunen ikuspuntutik, beraz, zaindu egin beharko litzateke, edo zaintzen jarraitu, neskek parte-hartze egokia dutela Gazteria Zuzendaritzak zuzenean eskainitako ekipamenduen eta zerbitzuen eskaintzaren plangintzan, nesken premien arabera izan dadin.

Bestalde, gazte-politika transbertsalaren kudeaketari dagokionez, litekeen jarduketa bat litzateke datuak eskatzen jarraitzea, sexuaren arabera bereizita aztertzea eta datu horiek erakunde eta administrazio eskudunei ematea, datuen arabera eta adinaren eta sexuaren ondoriozko diskriminazio aniztuna saihesten ahalegintzearen ikuspegitik jokatzeko gomendioarekin.

EMAKUMEZKO GAZTEEN PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA


Emakumeen presentziaren eta parte-hartzearen azterketa egokia da, jakina, Legearen artikulua batzuek gazteen parte-hartzearen baldintzak eta ezaugarriak arautzen dituztelako.

Gazteen parte-hartzea: 27.-30. artikulak

Gazteen partaidetza sustatzea funtsezko tresna da gazteak ahalduntzeko, eta erabakiak hartzen parte har dezaten bultzatzeko. Gazteriaren Euskal Legearen helburuetako bat gazteen partaidetza sustatzea denez, azter daiteke zer neurritan esku hartzen duten gizonezko eta emakumezko gazteek elkarte-mugimenduan, eta zer neurritan betetzen dituzten ardura-postuak parte hartzen duten elkarteetan.

Elkarteek askotariko xedeak izan ditzakete, helburu politikoak, ludikoak, kulturalak eta abar, baina gizarte batek eta kolektibo jakin batek (gazteriak oraingo honetan) duten partaidetza-mailaren adierazgarri ona dira.

2016an, Euskadiko 15-29 urte bitarteko gazteen ia erdiak (% 46,2) elkarteren batean sartuta zeuden, aurreko urteetan baino gehiago.



Gainera, urteetan zehar asoziazionismo-tasa handiagoa ikusten da gizonezko gazteen artean, baina hori batez ere kirol-elkarteetan parte-hartze handiagoa izatearen ondorio da, elkarte horiek biltzen baitituzte gazte gehien. Izan ere, kirol batzuk egiteko, lehiaketa-kirolak batez ere, federatuta egon behar da, eta, horretarako, lotura izan behar da kirol-klub edo -elkarte batekin. Kirol-elkarteak kontuan hartuko ez bagenitu, asoziazionismo-tasa % 31,7ra jaitsiko litzateke, bai eta gizonezko eta emakumezko gazteen arteko aldea ere (are gehiago, emakumeen tasa gizonena baino handixeagoa litzateke: % 33,1 eta % 30,4 hurrenez hurren).

Elkarte motak kontuan hartuta, ikusten dugu emakumeek presentzia handiagoa dutela honako elkarte hauetan: gazte-elkarteak; denbora libreko elkarteak; kultura- eta arte-elkarteak; euskara sustatzeko elkarteak; osasunarekin, minusbaliotasunekin eta osasun-laguntzarekin

zerikusia dutenak; feministak edo emakumeekin zerikusia dutenak; ikasle-elkarteak; ekologistak edo kontsumo ekologikokoak; sindikalak eta profesionalak.

Kirol-, mendi-, musika- eta politika-elkarteetan baino ez dute presentzia handiagoa gizonen emakumeen baino. Gainerakoetan, ez da alderik ikusten gizonen eta emakumeen gazteen afiliazio handiagoan.

Euskadiko 15-29 urte bitarteko biztanleak gaur egun eta iraganean zenbait elkarte motatako kide izatea, sexuaren arabera				
Euskadiko 15-29 urte bitarteko biztanleak gaur egun eta iraganean zenbait elkarte motatako kide izatea, sexuaren arabera	Emakumeak		Gizonak	
	Gaur egun	Iraganean	Gaur egun	Iraganean
(%)				
Kirol- edo mendi-elkarteak	13,7	21,1	33,4	28,3
Jolas-elkarteak (lagunarteak, konpartsak, txokoak...)	12,0	7,0	13,4	5,2
Gazte-elkarteak edo denbora librekoak	8,8	20,4	6,8	15,7
Kulturalak edo artistikoak	8,3	13,4	7,8	8,8
Musikalak, bandak, taldeak, abesbatzak...	3,5	14,9	7,1	10,8
Politikoak	3,6	2,3	4,5	2,4
Ikasle-elkarteak	3,6	12,5	2,0	8,9
Euskararen sustapena	4,6	8,6	1,6	6,2
Osasunarekin, minusbaliotasunekin, osasun-laguntzarekin eta abarrekin zerikusia dutenak	4,7	4,0	1,5	2,3
Erligiosoak edo parrokiakoak	2,5	5,9	2,5	4,4
Ekologistak edo kontsumo ekologikokoak	2,7	3,2	1,7	3,0
Feministak edo emakumeekin zerikusia dutenak	4,4	3,8	0,5	1,6
Giza eskubideak, garapenerako lankidetzak, LGTB mugimenduari lotuak eta abar	2,5	2,3	2,5	2,2
Sindikatuak	3,0	1,8	2,1	1,8
Profesionalak	2,0	1,3	1,0	0,8
Etorkinenak	1,9	1,0	1,0	0,9
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)				

Boluntariotza eta lankidetzak: 31.-34. artikulak

2017. urtean, 100 pertsonak esku hartu zuten Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan, eta haietatik % 80tik gora neskek ziren.

ONDORIOAK PARTE-HARTZEARI BURUZ

Ikusten da gizonen eta emakumeen gazteek ez dutela parte-hartze berdina elkarrekin, baina alde hori lehendabizikoek kirol-elkarrekin parte-hartze handiagoa izatearen ondorio da. Kirol-elkarrekin kontuan hartuko ez balira, asoziazionismo-tasa txikiagoa litzateke, eta gizonen eta emakumeen arteko aldeak ia desagertu egingo lirateke oro har.

Lankidetzak eta boluntariotza-programen bidezko parte-hartzea, ordea, emakumeen aldean da gehienbat.

Oro har, emakumeen parte-hartzea gizonen baino txikiagoa da eta aldeak daude asoziazionismo-esparruetan.

Jardutako ildo moduan, parte hartzeko bide berriak bilatzea proposa daiteke, bai mutilentzat bai neskentzat, kontuan hartuta genero-ikuspegia eta, zehazki, neskek denbora gutxiago dutela.

ERABAKIAK HARTZEKO AUKERA IZATEA

Emakumeek erabakiak hartzeko aukera izatearen eta Gazteriaren Euskal Legearen artikuluen arteko lotura, alde batetik, gazte-politika profesionalen ardura-postuen azterketan oinarritzen da, eta bestetik, erakundearteko eta sailarteko koordinazio-organoetan duten ordezkaritzan.

Gazte-politika profesionalak: 14. artikulua

Erabakiak hartu ahal izateari dagokionez, lehenik eta behin azter daiteke ardura-postuetarako zer sarbide duten gizonak eta emakumeek gazte-politikak kudeatzeko ardura duten organoetan. Oro har, lan-esparru nagusiki feminizatua da. Gainera, Eusko Jaurlaritzan, emakume bat da burua. Hala ere, esan behar da sailburuaren azpitik dauden ardura handieneko bi postuak gizonak beteta daudela. Bost ardura-postuetatik (Saila, Sailordetza, Zuzendaritza, Gazteriako arduraduna eta Prospekzio-arloaren Arduraduna), hiru gizonak betetzen dituzte, eta bi, berriz, emakumeek.

EUSKO JAURLARITZAKO GAZTERIA ZUZENDARITZA, 2017

Postuaren izena	Emakumeak	Gizonak
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA	1	0
ENPLEGU ETA GAZTERIA SAILBURUORDEA	0	1
GAZTERIAKO ZUZENDARIA	0	1
GOI KARGUKO IDAZKARIA	0	1
GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ARDURADUNA	0	1
PROSPEKZIO-ARLOAREN ARDURADUNA	1	0
GAZTERIA TEKNIKARIAK	5	2
PROSPEKZIOKO TEKNIKARIAK	1	1
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARIA	1	0
WEBGUNEEN KUDEAKETA	1	0
ADMINISTRAZIO OROKORRA	3	0
GUZTIRA	13	7

Erakundearteko eta sailarteko koordinazio-organoak: 10.-13. artikulua

Gazte Planeko Zuzendaritza Batzordea ardura-postuetan dauden pertsonaz osatuta dago eta postu horietara emakumeak gutxiago iristen dira, are sektore feminizatueta ere.

ERABAKIAK HARTZEKO POSTUETARA IRISTEARI BURUZKO ONDORIOAK

Erabakiak hartzeari dagokionez, ikusten da ezen, gazte-politiken esparrua gehienbat sektore femeninoa izan arren, are ordezkaritza orekatutzat jotzen denaren gainetik ere, erabakiak hartzen diren postuak ez direla emakumeen aldeko desoreka horren adierazgarri, ez esparru publikoan, ez mugimendu parte-hartzailean erabakiak hartzeko postuetan sarrera izateari dagokionez.

Jarduteko bide moduan, azpimarra liteke emakumeak erabakitzeko, ordezkatzeko eta koordinatzeko postuetan egotearen sustapena gazte-politiketan, ekintza positiboko neurrien bidez.

GIZARTE-ARAUAK ETA BALIOAK


Atal honetan, emakumezko gazteek emakume eta/edo ama izateagatik hautematen dituzten desparekotasunak aipatuko dira, bai eta zer-nolako iritzia duten ere emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpideei buruz.

Lau emakumezko gaztetik batek uste du prestakuntza eta esperientzia bera izanda ere diskriminatu egingo luketela hautaketa-prozesu batean emakume izateagatik. Gizonezko gazteek ere uste dute errazago lor dezaketela enplegu bat gizona izateagatik. Iritzi hori ia ez da aldatu azken urteetan.

Euskadiko 15-29 urte bitarteko gizonak eta emakumeek enplegu bat lortzeko aukerez dituzten iritzien bilakaera, lanpostua lortzeko lehiakidea, prestakuntza eta esperientzia bera izanda ere, beste sexukoa bada						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	2008	2012	2016	2008	2012	2016
Gizonak aukera gehiago ditu	23	28	28	23	19	21
Emakumeak aukera gehiago ditu	9	9	8	6	9	10
Sexuak ez du inolako eraginik	60	57	58	64	64	63
Ed/ Ee	7	6	6	7	8	6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (seriea: *Euskadiko Gazteak*)

Era berean, gizonazko gazteek bezala emakumezko gazteek ere uste dute amatasuna traba dela emakumeen ibilbide profesionalerako, baina hori ez da gertatzen gizonak aita direnean.



Indarkeria matxistari dagokionez, urteotan emakumeen aurkako indarkeria mota edozein izanda ere oso larria delako ustea gehiago zabaldu da gazteen artean.

Proposatutako indarkeria mota bakoitza oso larria dela uste duten Euskadiko 15-29 urte bitarteko emakumeen eta gizonen ehunekoaren bilakaera				
(%)	Emakumeak		Gizonak	
	2012	2016	2012	2016
Sexu-harremanak izatera behartzea	94	98	92	96
Etiketetik ateratzea debekatzea	82	93	76	88
Mehatxatzea	83	93	76	89
Mespretxuak egitea	67	79	58	70
Erabakiak hartzen ez uztea	52	75	45	63
Iraintzea	50	65	41	55
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (seriea: <i>Euskadiko Gazteak</i>)				

2016an, adibidez, emakumezko eta gizonezko gazte gehienek uste dute oso larria dela proposatutako indarkeria-adierazpideetako bakoitza.

Oro har, emakumezko gazteek gizonezko gazteek baino neurri handiagoan uste dute indarkeria-adierazpide horietako bakoitza larria dela, baina batzuen eta besteen arteko iritzialdeak nabarmenagoak dira indarkeria-adierazpide ikusezinak aztertzean, hala nola mespretxatzea edo gauzak esaten ez uztea, bai eta irainari dagokionez ere.

GIZARTE-ARAUETAN ETA BALIOETAN BURUZKO ONDORIOAK

Emakumezko gazteek lan-munduan emakume izateagatik desparekotasuna dagoela hautematen jarraitzen dute, bai enplegua lortzean, bai eta, ama izatea erabakitzen badute, etorkizunean izango dituzten sustapen-aukeretan ere. Gizonek ere hautematen dute desparekotasun hori. Hortaz, parekotasun-alderdietan lan egin behar da esparru honetan, emakumeek gizonek daukaten aukera berekin garatu ahal izan dezaten beren ibilbide profesionala, ama izatearen eraginaren mende egon gabe, are gehiago egungo gizarte zahartuan, arriskuan baitauka belaunaldi-txandaketa, emakumezko gazte horiek ama ez izatea erabakitzen badute etorkizun profesionala ez tratatzeko.

Gazte gehienek aitortzen dute larria dela indarkeria sexista, adierazpideak agerikoak edo ikusezinak izanda ere, baina oraindik ere badago zer egin franko, bereziki gizonezko gazteen artean, hain esplizituak ez diren indarkeria-adierazpideen larritasunaren kontzientzia hartzeko.

ESKUBIDEAK.

Eskubideei dagokien azterketan honako hauek kontuan hartzen dira: gazteen esparruan zuzeneko edo zeharkako diskriminazioak izatea; justizia izateko baldintzak; eta lege-aginduak berdintasunari dagokionez betetzea. Gazteriaren Legeari, gazteen berdintasunari dagokionez, honako agindu hauek eragiten diote:

Amsterdamgo Tratatuak (1999. urtean sartu zen indarrean): Amsterdamgo Tratatuak erkidego-erakundeak behartzen ditu berdintasuna erkidegoaren misiotzat hartzera (EEE eratzeko tratatuaren 2. artikulua), politika guztiak garatzean kontuan hartu beharreko helburutzat hartzera (EEE eratzeko tratatuaren 3. artikulua) eta sexuagatiko diskriminazioaren aurka eta, besteak beste, sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurka egiteko neurri egokiak hartzeko betebehartzat jotzera ere bai (EEE eratzeko tratatuaren 13. artikulua). Halaber, berdintasuna EBren gizarte-politikaren egiturazko elementua da, eta estatu kideen jardunaren osagarrietako bat da lan-merkatuko aukerei eta laneko trataerari dagokienez (EEE eratzeko tratatuaren 137.1 artikulua), eta berme zehatzagoa ordainsarien berdintasunaren printzipioa betetzeko, ezartzen baita lan bererako aplikatzeaz gain, balio bererako aplikatu behar dela (EEE eratzeko tratatuaren 141.1 artikulua). Halaber, aukera ematen zaie estatu kideei ekintza positiboak ezartzeko edota horiei eusteko, ordezkaritza gutxien duen sexuari jarduera profesionala egiten laguntzeko badira, edota lanbide-karreretan desabantailarik ez izateko edo daudenak orekatzeko badira (EEE eratzeko tratatuaren 141.4 artikulua).

Euskadiko Autonomia Estatutua (1979): Autonomia Estatutuaren 9.1 artikulua berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatua ez izateko eskubidea aldarrikatzen du. Era berean, 9.2.d artikulua xedatzen du botere publikoen betebeharra dela baldintzak sustatzea eta oztopoak kentzea pertsonen eta pertsonak sartutako taldeen berdintasuna egiazkoa eta eraginkorra izateko.

Otsailaren 5eko 2/1988 Legea: Emakumearen Euskal Erakundea/Emakunde eratzekoa den lege horrek, zioen adierazpenean, lehentasunezkoztat jo zuen emakumeen diskriminazio mota oro benetan desagerraraztea eta gure erkidegoko eremu guztietan emakumearen parte-hartzea sustatzeko neurriak hartzea. Eta, halaber, arlo horretan jardun koordinatua sustatzeko eginkizuna hartu zuen bere gain.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea (2005): Lege horrek, 3. artikuluan, “Printzipio orokorrak” deritzon, zortzi printzipio orokor adierazten ditu: Tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea, genero-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua, eta lankidetzak eta koordinazioa.

Egitura orokorrari buruzko artikulua batzuk biltzen ditu I. tituluak, EAEko administrazio guztiei eragiten dietenak; zehazki:

- 4. artikulua. – Xedapen orokorrak.
- 5. artikulua. – Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunak.
- 9. artikulua. – Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
- 11. artikulua. – Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateak.
- 13. artikulua. – Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.

Bestalde, EAEko administrazio publikoen eta botereen jarduketan genero-ikuspegia sartzeko neurriak jasotzen ditu II. tituluak, eta, beraz, Gazteria Zuzendaritzaren jardun osoari ere eragiten dio: Honako artikulua hauek biltzen ditu:

- 15. artikulua. – Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak.
- 16. artikulua. – Estatistiken eta azterlanen egokitzapena.
- 17. artikulua. – EAEko administrazio publikoetako langileen gaikuntza
- 18. artikulua. – Xedapen orokorrak.
- 19. artikulua. – Generoaren arabera eraginaren aurretiko ebaluazioa.
- 20. artikulua. – Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.
- 21. artikulua.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.
- 22. artikulua.– Azalpen-memoria eta arauaren edo egintzaren onespina.

Artikulu horiek *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren* bitartez ezartzen dira, planaren helburuak konpromiso bat baitira Gazteria Zuzendaritzarentzat, EAEko administrazio publikoetako gainerako arloentzat bezala. Konpromisoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018-2021 eperako *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan*ean jasota daude.


1.7 AURRETIAZKO NEURRIEN ERAGINA

Ez dago aurretiazko neurririk.


1.8 ERAGINGO DIEN EMAKUMEEN AURREIKUSPENA

Gazteriaren Euskal Legearen xede-publiko nagusia 12 eta 30 urte bitarteko gazteak dira.

Adin-tarte hori hartuta, ikusten dugu Legeak 170.194 emakumeri eta 177.296 gizoni eragingo liekeela.



Gazteen kopurua etengabe txikitzen ari da azken urteetan, eta horren ondorioz, Euskadin bizi-itxaropena handitzearekin batera, gazte-indizea, hau da, 15-29 urte bitarteko gazteek biztanle guztien artean duten proportzioa, gero eta txikiagoa da.



1.9 GAZTERIAREN LEGEAREN HELBURU OROKORREN DESKRIBAPENA.

Legearen xedea da arau- eta eskumen-esparrua ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan gazteria-politika garatzeko, Gazteriaren Euskal Sistema arautu eta antolatzearen bidez.

Administrazio publikoen premia bati erantzuten dio, dauzkaten eskumenak eta funtzioak antolatu behar baitira, gazte-politika integrala sustatzeko, hori honako hau dela ulertuta:

- Gazteen autonomia, emantzipazioa eta gizarteratzea ahalbidetzeko neurriak, gazte-politika transbertsalen plangintzaren, gauzapenaren eta ebaluazioaren bidez..
- Gazteen sustapena, gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoaren bidez.

Zehazki, horrenbestez, legearen hiru helburu nagusiak hauek dira:

- Gazteen autonomia eta emantzipazioa bideratzea, politika transbertsalak finkatzearen eta sailarteko eta erakundearteko koordinazioaren bidez;
- Gutxieneko kalitatea bermatzea berariaz gazteak sustatzeko diren zerbitzuak eta ekipamenduak ematean;
- EAEko gazteek parte hartzeko eta hitz egiteko dauzkaten bideak zabaltzea, toki-esparruan ere bide egonkorak sortuta, eta elkarteetan sartuta dauden gazteei bezala sartuta ez daudenei ere lekua emanda.

1.10 BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROPOSATUTAKO HELBURU ESPEZIFIKOEN DESKRIBAPENA.

Gazteriaren Legeak jarduteko dauzkan printzipio nagusien artean aukera-berdintasuna da lehendabizikoa, eta honela definitzen du: “... neurri egokiak aplikatzea, zertarako eta bermatzeko gazte guztiek berdintasun-egoeran eta benetan baliatzen dituztela eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta funtsezko gainerako eskubideak (...), bai eta neurri aproposak aplikatzea ere”.

Gainera, gizonetako eta emakumeetako gazteen arteko berdintasunaren sustapenean eragina izango duten beste printzipio orokor batzuk ere definitzen dira, hala nola:

- Unibertsaltasuna, dibertsitateari eta desparekotasunari dagokienez. Legeak honako hau dio: “... behar diren baliabideak jarri beharko dira gazteak emantzipatzeko prozesua dibertsitatea eta desberdintasunak errespetatuta gauzatzeko”; eta jasotzaileaz honako definizio hau ematen du: “... gazte guztiak izango dira gazte-politikaren hartzaileak, inolako bereizkeriarik egin gabe arraza, sexua, hizkuntza, desgaitasuna, sexu-joera, erlijioa, politikari edo beste edozeri buruzko iritzia, jatorri etnikoa, maila ekonomikoa, jaioterria edo beste edozein egoera pertsonal nahiz sozial dela-eta”.
- Gazte-ikuspegia sartzeko. Gazte-politikak transbertsalak izatea lortzeko oinarritzko tresna moduan, Legeak bere printzipio gidarien artean jasotzen du gazte-ikuspegia txertatzea EAEko administrazioen jardunean eta politiketan, “horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta gazteen emantzipazioa sustatzeko helburu orokorra...” ezar dadin. Gainera, txertatze horretaz hau dio dela: “... gazteen egoera, baldintza, jomuga eta premiak modu sistematikoan kontsideratzea”.
- Ekintza positiboa. Gazteentzako ekintza positiboa funtsezko tresna da gazteen emantzipazioa sustatzeko, eta, legean xedatuaren arabera, “ekintza positiboaren printzipioa aplikatuko da bereizkeria-egoera edo -baldintzetan dauden gazteen arteko desparekotasunak murrizteko”.
- Gazteen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta rola eta estereotipoak desagerraraztea. Jarduteko beste printzipio bat adinari lotutako estereotipoak desagerraraztea da; hartara: “... gizartean dauden rol sozial eta estereotipoak desagerraraztea..., bai eta gazteen artean,... beste edozein egoera pertsonal edo sozial dela-eta, desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sorrarazten edo bultzatzen dituztenak ere”.
- Balioen sustapena. Azkenik, Legeak balio demokratikoak garatzea sartzen du bere printzipioen artean, eta definizio hau ematen du: “Balio demokratikoen garapena bizikidetzak, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna, jasangarritasuna eta bakearen nahiz giza eskubideen defentsa bultzatzeko bideratutako programa eta ekintzen sustapen gisa ulertu behar da”.

1.11 HELBURU OROKORRAK LORTZEKO NEURRIAK ETA PROZEDURAK

Gazteriaren Euskal Legean, honela egituratzen dira helburu orokorrak lortzeko neurriak eta prozedurak:

I. tituluak EAEko administrazio publikoen eskumenak eta eginkizunak definitzen ditu, eta eskumenak administrazioen artean nola banatzen diren eta administrazio orokorraren, foralaren eta lokalaren eginkizun espezifikoak zein diren esaten du.

II. tituluak gazte-politika garatzeko tresnak eta neurriak jasotzen ditu, eta zati hauek dauzka:

- Lehen atalean, Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa, jarduera-eremua, egitura eta definizioa jasotzen dira;
- Lehen sekzioan, berriz, hauek arautzen dira: gazteria-arloko politika transbertsala sustatzeko tresnak eta neurriak arautzen dira, honako hauek barne hartuta: xedapen orokor bat, esaten duena derrigorrezkoa dela kontuan hartzea gazteen autonomia eta emantzipazioa bideratzeko helburua, arauak egin eta aplikatzean, eta, horretarako, EAEko Administrazio Orokorraren arauen edo planen ondorio onak edo txarrak aztertzea; eta artikulua batzuk, honako hauek egiten dituztenak: xedatzea derrigorrezkoa dela Gazteriaren arloko Euskal Estrategia bat egitea gazteria-arloan; esku-hartze ildoak zehaztea (enplegua eta diru-sarreraren bermea, hezkuntza, etxebizitza, emakume eta gizonen berdintasuna, sexu eta genero dibertsitatea, gizarte-zerbitzuak, kultura, kirola, aisia eta denbora librea, osasuna eta prebentzioa, ingurumena, kontsumoa, informazioaren gizartea, boluntariotza, landa-ingurunea eta itsastarra, mugikortasuna, bizikidetza, kanpoko euskal etxeak); eta gazteria-arloko planetako plangintza- eta ebaluazio-prozedurak ezartzea.
- Bigarren sekzioan, gazte-sustapenerako tresnak eta neurriak, barruan hartuta gazteentzako ekipamendu eta zerbitzuen definizioa, aitorpena eta erregistroa; gazteentzako jarduera espezifikoak egiteko baldintzak eta definizioa; gazteen prestakuntza-arloko titulazioak ematea; eta txartelak ematea.

III. tituluak Gazteen Parte-hartzea eta Gizarte Ekimena jasotzen ditu, eta bi kapitulu dauzka. Lehenean hauek aipatzen dira: gazteen parte-hartzea sustatzeko neurriak, definizioa, egiturak, eta informazioaren teknologien erabilera. Bigarrenean, berriz: gizarte-ekimenaren baldintzak, betebeharrak eta definizioa, gazte-boluntariotza eta nazioarteko lankidetza.

VI. tituluak antolaketa administratiboa xedatzen du, eta honako hauek arautzen: 1. kapitulan, Euskadiko Gazteria-arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa; 2. kapitulan, sailarteko koordinazio-organoak –Sailarteko Batzordea eta koordinazioa gazteria arloan sail bakoitzaren barruan administrazio orokorrean; eta sailarteko koordinazioa foru- eta toki-administrazioetan–.

Azkenik, V. tituluak ikuskaritza-mekanismoak eta zehapen-araubidea ezartzen ditu.

1.12 BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROPOSATUTAKO HELBURU ESPEZIFIKOAK LORTZEKO NEURRIAK ETA PROZEDURAK.

Ondoren adierazten da zer neurri jasotzen diren Gazteriaren Legean berdintasuna sustatzeko, edo zer neurrik duten eragin zuzena diagnostikoan aurkitutako desparekotasunetan, eta artikulua adierazten da, eta berariaz azaldu zer zenbakitan aipatzen den berdintasuna.

- 18. artikulua Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak arautzen ditu, eta zenbait alderdi jasotzen ditu berdintasuna sustatzeko:

b) atalean, hezkuntzari buruzkoan, honako hau esaten da bigarren puntuan: “Arreta berezia emango zaio balio jakin hauetan hezteari: bakea; gatazkak konpontzeko modu baketsuak; giza eskubideen errespetua; elkartasuna; erantzukizuna; aukera-berdintasuna; bizi-ohitura osasungarriak; jasangarritasuna, eta jokaera xenofoboan, arrazisten eta bestelako edozein diskriminazio motaren prebentzioa —araza, sexua, sexu-orientazioa edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial oinarrian dituen—. Hartara, gazteengan elkartasuna eta bestelakoa denarekiko errespetua sustatuko dira, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa ere”.

d) atala: d) Gazteria eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

1.- EAEko administrazio publikoek gazteria-politiketan genero-ikuspegia txertatzea bermatuko dute.

2.- EAEko administrazio publikoek gazteen garapen osoan oinarritutako prestakuntza bermatuko dute sexuaren araberako estereotipo eta rola alde batera utzita. Horretarako, ikastetxeetan hezkidetza sustatuko dute.

3.- EAEko administrazio publikoek hainbat neurri hartuko dituzte gazteen artean biolentzia sexista prebenitzeko.

4.- EAEko administrazio publikoek gazteak aldaketa-eragile bihurtzeko lan egingo dute, gizarte berdinzaleago bat eraikitzeko emakumeen aurkako indarkeria matxistatik libre.

e) atala Gazteria eta sexu- eta genero-aniztasuna

EAEko administrazio publikoek aniztasun-sexuala eta genero-aniztasunaren integrazioa sustatuko dute gazteei zuzendutako jarduketetan.

f) atalean, gizarte-zerbitzuei buruzkoan, honako hau esaten da: “EAEko administrazio publikoek bermatuko dute gizarte-zerbitzuen politikak gazteen premiei egokitzen zaizkiela, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gazte guztien autonomia pertsonalari eta komunitate-integrazioari ematen dion laguntza sendotuko dute”.

h) atalak kirola esku hartzeko ildo moduan jasotzen du, eta honako hau dio: “... EAEko administrazio publikoek gazteek aukera berekin kirola egitea sustatuko dute, beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzarekin, gazteak ohitura osasungarrietan sentsibilizatzen laguntzeko balio duelako”.

Osasunari eta prebentzioari buruzko j) atalean, berriz, hau adierazten da: “... EAEko administrazio publikoek osasuna sustatuko dute, bai eta gazteek bizitza-ohitura osasungarriak hartzea ere, horretarako gazteentzako programa, proiektu edo kanpaina espezifikoak erabiliz. Honako hauek direla-eta arreta berezia jarriko da: osasun mentala

eta emozionala; sexualitaterako heziketa; droga-mendekotasunen eta beste adikzio batzuen prebentzioa eta tratamendua; elikadura-arazoak; sexu-transmisiozko gaixotasunak; nahi ez diren haurdunaldiak; eta zirkulazio-istripuen prebentzioa”.

m) atalean, informazioaren gizarteari buruzkoan, hau adierazten da lehen puntuan: “... EAEko administrazio publikoek gazteek informazioaren eta komunikazioaren teknologietan sarbidea izatea sustatuko dute, eta bereziki zainduko dute bitarteko teknologikoak aukera berekin izan ahal izatea”. Gainera, bigarren puntuan hau esaten jarraitzen da: “... era berean, gazteek askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna eta jasangarritasuna (...) bultzatzen dituzten Interneteko sare sozialetan parte hartzea sustatuko da”.

r) atalean, Gazteak, autonomia eta erantzunkidetasuna: EAEko administrazio publikoek pertsona guztien nahitaezko parte-hartzea eta ardura sustatuko dituzte, pertsonen sexua gorabehera, eguneroko bizitzako eginkizunak betetzean; besteak beste, etxeko lanak eta norbera nahiz besteak zaintzeko lanak egitean.

22. artikulua gazteentzako zerbitzuak eta ekipamenduak aitortzeki buruzkoa da, eta hau xedatzen du 3. puntuan: “Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak diseinatzean, aintzat hartuko da gizonak eta emakumeak premia desberdinak dituztela, eta, hala badagokio, diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak desagerrarazten lagunduko da”.

24. artikuluan, Gazteei zuzendutako jarduerak: “f) Bermatzea jarduerak berdintasun-irizpideak izango dituztela eta ez direla izango jarduera sexistak”.

27. artikuluan, Partaidetza sustatzea: “1.– Euskal administrazio publikoek gazteek parte hartzea sustatu behar dute, gazte-politikei momentuko egoera sozial errealari dagokionez koherentzia emate aldera, erakundeen eta gazteen arteko elkarrizketa sustatze aldera, gazteen garapen indibidual eta soziala eta gizartearen berrikuntza bultzatze aldera, eta parekotasuna sustatuz egin behar dute hori”.

III. tituluan, eta gazteen parte-hartzeki dagokionez, gazte-politiketan parte hartzeko egituren funtzionamendua arautzen duen artikulua, 28.ak, emakumeen presentzia aipatzen du, eta honako hau xedatzen: “... edozein gazte-kontseiluren edo gazteek parte hartzeko egitura edo guneren funtzionamenduan, edozein esparrutakoa izanda ere, ahalegina egingo da erabakiak hartzen direnean emakumezko eta gizonetako gazteen iritziak eta beharrak presente egoteko, bai eta desparekotasun-egoeran dauden gazteenak ere”.

Ildo horretan, 28. artikulua horren 3. atalean hau adierazten da: “Gazteen partaidetzarako egitura horien osaerari dagokionez, gizonen eta emakumeen presentzia parekidea izango da beti”.

1.13 BALIABIDE EKONOMIKOEN DESKRIBAPENA ETA, AURREIKUSTEN DENAREN ARABERA, ZER NEURRITAN ERAGINGO DIETEN GIZON-EMAKUMEEI

Baliabideei ekonomikoei dagokienez, kontuan hartu behar da Gazteriaren Legeak, ekintza edo programa zehatzak sustatzea baino areago, sektore bat antolatzea duela xede nagusiki. Hortaz, azken urte hauetan gazte-politika sustatu eta garatzeko garatuz joan diren tresna batzuk finkatzeko esparru bat da. Tresna horien artean, Eusko Jaurlaritzako sailek aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran aurreikusi dituzten ekintza positiboen programazioa eta urteko ebaluazioa jasotzen dira; programazio horretan, ekintzak garatu ahal izateko baliabide ekonomikoak sartuko dira, eta ebaluazioan, berriz, haien betetzea, gauzatutako aurrekontuaren ikuspegitik. Hortaz, Gazteriaren Euskal Legea onartu eta berorretan aurreikusitako mekanismoak abian jarri ondoren, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean jakin ahal izango da zer baliabide ekonomiko bideratzen ari diren sail jakin bakoitza eta Eusko Jaurlaritza osoa gazte-politiketara, eta, zehazki, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna sustatzeko neurriak biltzen dituzten ekintzetako bakoitzera.

1.14 EBALUAZIO-ADIERAZLEAK ETA -MEKANISMOAK

Gazteriaren Euskal Legearen printzipio orokorren artean, honako hau xedatzen da Legearen plangintzaz eta ebaluazioaz: “... antolaketa-esparru egokitu eta egonkor bat ezarriko da gazteen gai-arloan, koherentzia, eraginkortasuna, jarraitutasuna eta baliabideen optimizazioa bermatzeko, bai eta etengabeko hobekuntza ere, gai-arlo honetako ekintza eta planteamendu guztietan”.

Bestalde, 19. artikulua administrazio bakoitzean gazte-politika planifikatzea eta ebaluatzea arautzen du, eta honako hau xedatzen: “...gazteria-arlorako plangintza egokia bermatu beharko du bere lurralde-eremuan, dagokion legegintzaldiak iraun artean, eta erregelamendu bidez ezarriko diren irizpideen arabera ebaluatuko du; horrez gain, urteko memoria idatzi beharko du”.

Gainera, 20. artikulua programazioa eta urteko ebaluazioa arautzen ditu, eta hau xedatzen du: “Erkidego-, foru- eta toki-administrazioetako sail bakoitzak, urtero, banaka zein mankomunitateetan elkartuta, bere jarduera-programak landuko ditu, eta, aurreko artikuluetan jasotzen den plangintzaren garapenari jarraikiz, urtero programatzen dituen neurriak betetzeko erabiliko dituen diru-baliabideak zehaztuko ditu. Aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu eta gero, sail bakoitzak jarduera-programa horiek ebaluatuko ditu, erregelamendu bidez ezarriko diren irizpideei jarraikiz”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kasuan, Gazte Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sailarteko Gazte Batzordeak ebaluatuko du kasuan kasuko ekitaldia amaitu ondoren.

1.15 EMAKUMEEK ETA GIZONEK PARTE HARTZEKO PROIEKTUA ZABALTZEKO BIDEAK

- Aurretiazko kontsulta publiko fasean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza elektronikoko iragarkien Taulan iragarkia.
- Aurretiazko kontsulta publiko horretan, Gobernuaren Irekia plataforman informazioa.
- Gazteaukera Web gunean eta Gazteen Euskal Behatokian informazioa.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bidez informazioa.
- Gazteriaren Legea eratzeko gazteentzako topaketa.
- Gainera, aurreproiektua jendaurrean jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. GAZTERIAREN LEGEAREN GENERO-ERAGINAREN BALORAZIOA.

2.1 BALIABIDEAK ESKURATZEAN IZAN DAITEZKEEN ERAGINEN BALORAZIOA

Legeak baliabideak eskuratzeari dagokionez izan dezakeen eraginaren aurreikuspena puntu positibo batez baloratzen da.

Hori justifikatzeko, esaten da ezen, egindako diagnostikoan adierazi bezala eta gazteentzako ekipamendu eta zerbitzuei dagokienez – auzolandegiak, gazte-txartela, gazteen prestakuntza-arloko titulazioa–, mutilek eta neskek orekatu baliatzen dituztela bitartekoak, edo, bestela, desoreka emakumeen aldekoa dela. Hortaz, pentsatzen da arlo honetako ekintzen barruan dagoela sistematikoki kontuan hartzea mutilen eta nesken behar espezifikoak. Alde horretatik, eta berdintasunerako neurri espezifikoaren atalean esaten den bezala, 22. artikuluan, “gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak diseinatzean, aintzat hartuko da gizonek eta emakumeek premia desberdinak dituztela, eta, hala badagokio, diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak desagerrarazten lagunduko da”.

Bestalde, politika transbertsalekin zerikusia duten baliabideei dagokienez, desparekotasun adierazgarriak aurkitu dira sexuen artean zenbait arlotan, besteak beste, enplegurako sarbidean, diru-sarreretan, hezkuntzan, pobrezia-egoeran, kirolean, osasunean eta abarretan, eta berorien aipamen espezifikoa egiten da berdintasuna sustatzeko neurrien atalean:

Enpleguan, kontratazio egonkorra izateko aukeran eraginez, eta gizonen eta emakumeen arteko soldata-parekotasuna sustatuz; bai eta lana eta familia bateragarria izan daitezen guztientzat irekita dauden neurrien bidez ere, amatasuna eta/edo lanaldi-murrizketak zigorra izan gabe emakumeen ibilbide profesionalerako.

Hezkuntzan, neurriak sustatuz, egiazkoa izan dadin edozein ikasketa motatan hasteko aukera-berdintasuna, aukera oinarrituta egon gabe genero-aurreiritzi edo -estereotipoetan, eta dirua izatea edo ez izatea erabakigarria izan gabe.

Emantzipazioan, bidea emanez gazteek etxebizitza izan dezaten merkatu librekoak baino arazoizkoagoak diren prezioak ordainduta, bereziki emakumezko gazteei dagokienez, gizonezko gazteek baino kostu handiagoei aurre egin behar dietelako etxebizitza librean lortzeko.

Emakumezko gazteen pobrezia-egoerari dagokionez, gizarte-zerbitzuek gazte guztien autonomia pertsonalerako eta komunitate-integratziorako egiten duten ekarpena sustatzeko jarduerak-ildo bat ezarrita.

Kirolean, gizonek eta emakumeek kirola egiteko aukera bera izan dezaten sustatuz; eta horren ondorioa da emakumezkoen kirola babestu eta bultzatzea, bai eta, oro har, futbola (gizonezkoena) ez den beste edozein kirol ere, futboleko daudelako genero-desparekotasun handienak.

Osasunean, jarduerak-ildoak sustatuz, alde batetik, osasun mentalari lotuta, eta, bestetik, sexu-heziketari, nahi ez den haurdunaldirik izan ez dadin.

Autonomian eta erantzunkidetasunean, etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gizonezko eta emakumezko gazteek berdintasunezko parte-hartzea izan dezaten sustatuz, lan-zama bikoitza izan ez daitezen emakumeentzat, eta baliagarria izan dadin etorkizuneko belaunaldiak berdintasunean aktiboki hezteko.

2.2 PRESENTZIAN ETA PARTE-HARTZEAN IZAN DAITEKEEN ERAGINAREN BALORAZIOA

Legeak emakumeen presentziari eta parte-hartzeari dagokienez izan dezakeen eraginaren aurreikuspena puntu positibo batez baloratzen da.

Hori justifikatzeko, esaten da ezen, diagnostikoaren arabera, ikusten dela emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa dela, eta aldeak daudela, zehazki, emakumeen asoziazionismo-esparruetan. Alde horretatik, eta III. tituluan xedatu bezala, hau aurreikusten da: “...edozein gazte-kontseiluren edo gazteek parte hartzeko egitura edo guneren funtzionamenduan, edozein esparrutakoa izanda ere, ahalegina egingo da erabakiak hartzen direnean emakumezko eta gizonetzko gazteen iritziak eta beharrak presente egoteko, bai eta desparekotasun-egoeran dauden gazteenak ere”. Ildo horretan, 28. artikulua 3. atalean hau adierazten da: “Gazteen partaidetzarako egitura horien osaerari dagokionez, gizonen eta emakumeen presentzia parekidea izango da beti”.

Bestalde, gogoraraz daiteke ezen, orain ere emakumeen parte-hartzeari eta presentziari dagokienez, unibertsaltasuna, dibertsitatearekiko eta bestelakoarekiko errespetua, dagoela legearen printzipio orokorren artean, eta hau esaten dela: “... behar diren baliabideak jarri beharko dira gazteak emantzipatzeko prozesua dibertsitatea eta desberdintasunak errespetatuta gauzatzeko”; eta jasotzaileaz honako definizio hau ematen du: “... gazte guztiak izango dira gazte-politikaren hartzaileak, inolako bereizkeriarik egin gabe arraza, sexua, hizkuntza, desgaitasuna, sexu-joera, erlijioa, politikari edo beste edozeri buruzko iritzia, jatorri etnikoa, maila ekonomikoa, jaioterria edo beste edozein egoera pertsonal nahiz sozial dela-eta”. Gainera, beste printzipioetako bat da lan egitea gazteen artean desparekotasun- eta diskriminazio-egoerak sortzen edo sustatzen dituzten rolak eta estereotipoak desagerrarazteko.

2.3 ERABAKIAK HARTZEKO AUKERA IZATEAN IZAN DAITEKEEN ERAGINA BERRIKUSTEKO BALORAZIOA

Legeak emakumeek erabakiak hartzeko aukera izateari dagokionez izan dezakeen eraginaren aurreikuspena puntu positibo batez baloratzen da.

Erabakiak hartzeari dagokionez, 1. galdera-sortan egindako diagnostikoan ikusten da ezen, gazte-politiken esparrua gehienbat sektore femeninoa izan arren, are ordezkaritza orekatutzat jotzen denaren gainetik ere, erabakiak hartzen diren postuak ez direla emakumeen aldeko desoreka horren adierazgarri, ez esparru publikoan, ez mugimendu parte-hartzailean erabakiak hartzeko postuetan sarrera izateari dagokionez.

Jarduteko bide moduan, azpimarra liteke 27. Artikulua: “Euskal administrazio publikoek gazteek parte hartzea sustatu behar dute, gazte-politikei momentuko egoera sozial errealari dagokionez koherentzia emate aldera, erakundeen eta gazteen arteko elkarriketa sustatze aldera, gazteen garapen indibidual eta soziala eta gizartearen berrikuntza bultzatze aldera, eta parekotasuna sustatuz egin behar dute hori”.

2.4 GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ALDAKETAN IZAN DAITEKEEN ERAGINAREN AURREIKUSPENA

Legeak emakumeen parekotasunaren alde egiteko gizarte-arauak eta -balioak aldatzeari dagokionez izan dezakeen eraginaren aurreikuspena puntu positibo batez baloratzen da.

Hori justifikatzeko, esaten da ezen, nahiz eta diagnostikoan ikusten den gizonezko eta emakumezko gazteek ikuspegi desberdinak dituztela emakumeei zuzenean eragiten dieten garrantzi sozialeko gaiei buruz, besteak beste indarkeria sexistari buruz, Gazteriaren Euskal Legean jarduteko printzipio orokor moduan planteatzen dela balioen sustapena, honela ulertuta: “... beste zenbait balioen artean, berdintasuna bultzatzera bideratutako programen eta ekintzen sustapena”.

Gainera, gazteen artean diskriminazio-egoerak birsortzen dituzten rolak eta estereotipoak desagerrarazteko printzipio aipatua dago.

Horri, 18. artikuluan jasotako neurri zehatzak gehitzen zaizkio, hezkuntza-esparruan balioen sustapenean lan egitekoa, eta informazioaren gizartearen teknologia berriak erabiliz parte hartzearen bidez jardutekoa (28. Artikuluan).

2.5 ESKUBIDEAK BALIATZEAN IZAN DAITEKEEN ERAGINAREN AURREIKUSPENA.

Legeak emakumeen berdintasuna bultzatzeko eskubideetarako irispidea aldatzeari dagokionez izan dezakeen eraginaren aurreikuspena puntu positibo batez baloratzen da.

Hori justifikatzeko, esaten da ezen, printzipio orokorren artean, unibertsaltasunari, dibertsitatea eta bestelakotasuna errespetatzeari buruz aipatu dena jasotzen dela, non honako hau adierazten baita: “... behar diren baliabideak jarri beharko dira gazteak emantzipatzeko prozesua dibertsitatea eta desberdintasunak errespetatuta gauzatzeko”. Gainera, beste printzipio gidari baten bitartez, horretarako litezkeen mekanismoen artean ekintza positiboa ezartzen da, eta hori “... bereizkeria-egoera edo -baldintzetan dauden gazteen arteko desparekotasunak murrizteko” aplikatuko da.

2.6 BALORAZIO OROKORRA.

Aurrekotik ondoriozta daitekeen bezala, positiboa da geroko Gazteriaren Legearen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa, berdintasuna sustatzen baitu baliabideak eskuratzeari dagokionez, gazteek parte-hartze soziopolitikoan presentzia izateaz den bezainbatean, emakumeek gazte-politikei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan presentzia izateari begira, gizarte-arauak eta -balioak generoaren arabera banatzean, eta eskubideak eskuratzean.

3. III. GALDERA-SORTA: BERDINTASUNERAKO NEURRIAK

Legearen zirriborroan jasotako neurriez gain, Gazteria Zuzendaritzak beste neurri batzuk kontuan hartzen ditu, zeinak, testu arauemailea gainditu arren, gara baitaitezke erregelamendu bidez nahiz sailaren jardueraren plangintzaren barruan.

3.1 BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRI OROKORRAK

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana bera betez, Gazteria Zuzendaritzak zenbait ekintza egiten ditu, eta egiten jarraituko du, genero-ikuspegia transbertsala izan dadin, eta, horien artean, hauek nabarmentzen dira:

Euskadiko Gazteen Egoerari buruzko Diagnostikoa: Genero-ikuspegia sartzea eta berdintasun-unitatearekin egiaztatzea.

Genero-ikuspegia barneratzea Gazteen Euskal Behatokiak egindako azterlan eta ikerlan guztietan, eta, horretarako, sexuaren arabera aldeak aintzat hartzea aztertzen dituen gai guztietan.

Gazteen Euskal Behatokiaren gazteei buruzko adierazle-sistemako adierazle guztietan sexuaren arabera bereizitako datu estatistikoak jasotzea.

Eustaten webgunean emakumeen eta gizonen parekotasunari buruz dagoen atalean jasotako gazteei buruzko adierazleak berrikustea eta eguneratzea.

Berdintasun-irizpideak sartzea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako laguntzen deialdia arautzeko oinarrien definizioan.

Genero-berdintasuna sustatzea Auzolandegiak Programako gazteentzako auzolandegien zuzendaritza-, animazio- eta jarraipen-kontratuan.

Indarkeria sexista prebenitzeko lantegiak egitea Beldur Barik programan.

Generoari buruzko prestakuntza-modulu bat egitea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako asteburuko ikastaroan.

Genero-indarkeriaren alorreko adierazle espezifikoak eguneratzea Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan.

Indarkeria matxistaren prebentzioari eta sexu-dibertsitateari buruzko irakurketa-gidak egitea eta argitaratzea (transsexualitateari eta beste sexu-dibertsitate batzuei buruzko gida; sare sozialetako erotismoari, sextingari eta zibersexuari buruzko irakurketa-gida; gaztaroko eta nerabazaroko sextingari buruzko irakurketa-gida; indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko irakurketa-gida; 'Emakumeen aurkako indarkeriari Ez' irakurketa-gida; bikote nerabeetan indarkeria prebenitzeari buruzko irakurketa-gida...).

3.2 AHALDUNTZEA SUSTATZEKO NEURRIAK

Emakumeen ahalduntzea sustatzeari dagokionez, Gazteria Zuzendaritzak honako hauek egiten ditu:

Desparekotasunak desagerrarazten laguntzen duten informazio- eta sentsibilizazio-zerbitzuak mantentzea eta eguneratzea:

Sexualitatearen eta arriskuen prebentzioaren esparruan

Metodo antikonzeptiboak eta larrialdikoak

Aholkularitza-zerbitzu publikoak

Sexualitatearekin zerikusia duten zerbitzuak

Emakumeen osasuna

Elikagaien eta elikadura-nahasmenduen esparruan

Anorexia, bulimia, bigorexia, ortorexia...

Berdintasunaren sustapenaren esparruan

Hizkuntzaren sexua.

Emantzipazioari buruzko azterlanak aldizka egiten jarraitzea, gizonezko eta emakumezko gazteen lan-egoera eta etxebizitza izateko aukera aztertzen baitituzte honako hauei buruzko datuekin: lanerako sarbidea, enpleguaren ezaugarriak, gazte langabeen egoera, emantzipatzeko moduak, gazte emantzipatuen egoera ekonomikoa, oraindik familiaren etxean bizi direnek emantzipatzeko dauzkaten arazoak eta abar.

“Euskadiko Gazteak” azterlan-sailean honako hauek eta gisakoak aztertzen segitzea: genero-desparekotasuna; aisialdiko eta gizarte-bizitzako denboraren erabilerak; kultura- eta kirol-ohiturak; parte-hartze sozial eta politikoa; balioak; sexualitatea; indarkeria; eta abar.

Txosten espezifikoak sortzea eta adierazle berriak proposatzea litezkeen genero-arrakalak hobeto ezagutzeko.

Honako hauek aztertzea: sexu-hautuaren dibertsitatea, genero-identitatea eta sortzen diren adierazpideak (lesbianismoa, bisexualitatea, transexualitatea...).

3.3 ERANTZUNKIDETASUNA AREAGOTZEKO NEURRIAK

Honako hauek dira erantzunkidetasuna areagotzeko gauzatzen ari diren edo gauzatzea aurreikusita dauden neurriak:

- Borondatezko lankide gazteentzako prestakuntza- eta orientazio-moduluak egitea garapen-bidean dagoen proiektuan hasi baino lehen, tresnak izan ditzaten erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko lankidetzaproiektuan.
- 2012tik, erantzunkidetasunari buruzko galderak sartu dira “Euskadiko Gazteak” izeneko aldizkako azterlanetan, eta txostenaren kapitulu berezi bat gizonetzko eta emakumezko gazteen arteko desparekotasunari buruzkoa da, non, besteak beste, hauek aztertzen baitira: lanen banaketa bikote moduan bizi direnen artean; zaintza-lanari buruzko iritzia lan ordainduarekin alderatuta; eta, sexua dela eta, lana lortzean dagoen desparekotasuna.

3.4 INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEKO NEURRIAK

- 2012tik, indarkeria sexistari buruzko galderak sartu dira “Euskadiko Gazteak” izeneko aldizkako azterlanetan, eta txostenaren kapitulu berezi bat gizonetzko eta emakumezko gazteen arteko desparekotasunari buruzkoa da, non, besteak beste, hauek aztertzen baitira: gauez bakarrik ibiltzeko beldurra eta indarkeria-adierazpide esplizituen eta sotilen larritasunaren pertzepzioa.
- Gazteen Euskal Behatokiak *online* dauzkan adierazle estatistikoen sisteman emakumeen aurkako indarkeriari buruzko atal espezifikoko bat dago, etengabe eguneratzen dena.
- 2016tik, Gazteen Euskal Behatokia lantegiak egiten ari da indarkeria matxistari aurrea hartzeko estrategiei buruz. Lantegi horiek gazteen esparruan lan egiten duten profesionalentzat dira.

Vitoria-Gasteiz,

Ander Añibarro Maestre
GAZTERIAKO ZUZENDARIA
(Elektronikoki sinatua)

O.E.

Marcos Muro Nájera
ENPLEGU ETA GAZTERIAKO SAILBURUORDEA
(Elektronikoki sinatua)